NAFARROAKO LANBIDE HEZIKETAREN NAZIOARTEKO DIMENTSIOA

42. ZK - 2014KO IRAILA

IDEA

NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUAREN ALDIZKARIA

42. ZK - 2014KO IRAILA

IDEA

NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUAREN ALDIZKARIA

IDEA
42. ZK - 2014KO
Nafarroako Eskola Kontseilua

Lege gordailua:
NA-1482/2006

AURKIBIDEA

AURKEZPENA

4
- **José Iribas Sánchez de Boado**, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilaria.
- **Pedro González Felipe**, Nafarroako Eskola Kontseiluko burua.

NAZIOARTEKOTZEA LANBIDE HEZIKETAN

8
- ***Nazioartekotzeak Lanbide Heziketan dituen garrantzia***

10
- ***LHko ikasle eta irakasleen mugikortasuna***
- **Alicia Fernández Salinas**, C.I. Agroforestal.
- **Carlos Jordán Lasheras**, administrazioko eta finantzetako ikaslea ma ana sanz II-AMI ikastetxean.

16
- ***Nazioarteko lankidetzako beste proiektu mota batzuk***

18
- ***Parents Matter: Gurasoak ere bai.***

LANKIDETZAK: ESKOLA KONTSEILUA + GIZARTE ERAGILEAK

26
- *"LHren nazioartekotzea" LHko ikasleen "emigrazioari", ez!*
  José Miguel Gastón, STEE-EILAS.
- *Familien ikuspegia lanbide heziketaren nazioartekotzearen aurrean,*
  Pedro Baile Torrea, Presidente Concapa-Navarra.
- *"Hoyo-hoyo"-tik "kanimambo"-ra*,
  Jorge Lanchas Rivero, NEG eta FEREko ordezkaria.
- *Nazioarteko Lanbide Heziketa eta enplegua*,
  José Manuel Dafauce Pozo, Iruñeko María Ana Sanz Ikastetxe Integratuko zuzendaria.
- *Lanbide heziketa eta ekintzailetza*,
  Belén Goñi, Institución Futuroko zuzendaria.

LANKIDETZAK: EZAGUTZA ADITUA

40
- *Erasmus+: bizitzak aldatzen, adimenak zabaltzen*,
  OAPEE (Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren Europako Hezkuntza Programen Erakunde Autonomoa).
- *"Lanbide Heziketaren nazioarteko dimentsioaren garrantzia".*
  Carmelo Arriazu, Tuterako "ETI" IIPko Elektronikako irakaslea.

AURKEZPENA

José Iribas Sánchez de Boado

Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilaria

Mundu globalizatu, elkarrekin erlazionatu eta atzerrian egiteko pentsatutako mundu batean bizi gara. Erabilera lokalista edo endogamiko zaharrak gainditu ditugu eta gure jarduteko modua eta, bereziki, gure pentsamoldea beste parametro batzuetara egokitzen ari gara.

Gizarte ireki eta ingurune sozioekonomiko nazioartekotu eta hedatzen ari den bateko kide gara.

Hezkuntzak ez du bazterrean gelditu nahi eta ezin du bazterrean gelditu.

Beste hizkuntza batzuen ikaskuntzarekin, truke-harremanekin eta nazioartean egon eta parte hartzearekin zerikusia duten prestakuntza ekintzak garrantzitsuak dira hezkuntzako etapa guztietan. Alderdi hau "estrategikoa" izanen da, erreferentzia Lanbide Heziketako ikasketetan ezartzen badugu.

Gaur egun ulertzen den bezala, LHk lotura estua behar du ekoizpen- ehunarekin eta enpresarekin eta denok dakigu enpresa mundua nola mugitzen den nazioarte mailako koiunturako parametroetan. Hori dela-eta, Lanbide Heziketak jakin behar du egoera horri erantzuten eta, orobat, agertoki enpresarial eta laboral global batek eskatutako ezagutzak eta gaitasunak eman behar dizkie ikasleei.

Horrexegatik, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak modu ausart eta etengabean lagundu nahi ditu, nazioartekotzearen ikuspuntutik, gure ikasleen prestakuntza hobe dezaketen eta hari balio erantsia eman diezaioketen ekintza eta tresna guztiak.

Lan garrantzitsu hau egin ahal izateko, Nafarroako Lanbide Heziketaren Zerbitzuak badu bereziki horretan aritzen den Atal bat, urtero zernahi proiektu eta programa sustatzen eta lantzen dituzten esperientziadun profesionalez hornitua.

Gure laguntza osoa duen antolaketa egitura honi esker Nafarroan ugariak dira nazioarteko mugikortasunerako ekintzak, ikasleenak nola irakasleenak. Urtero hamarnaka irakaslek eta ehunka ikaslek iraupen desberdineko egonaldiak egiten dituzte Europako eta nazioarteko herrialde askotan.

Ekintza hauek ez dute soilik ezagutza

ekartzen, heldutasuna eta bizi- esperientzia garrantzitsuak ere ematen dizkiete gure ikasleei eta horrek etorkizuneko profesional moduan beren prestakuntza aberastu eta hobetzen dute.

Azpimarratu beharreko beste alderdi bat etengabeko parte-hartzea da, Lanbide Heziketako gure ikastetxeek beste herrialde batzuetako erakunde eta prestakuntza zentroetan garatu dituzten eta garatzen ari diren berrikuntzarako edo ezagutza transferitzeko proiektu askotan egindakoa.

Europar nortasuna eraikitzeko helburuak ("Europa egitea" ezaguna) hezkuntzan diseinatu eta hartatik bultzatutako ekintza askotan du iturburu garrantzitsua.

Modu natural batean, mugikortasunak eta beste egoera batzuk ebazteak eta beste pertsona batzuekin eta beste herrialde batzuetan bizitzeak ematen duen esperientziak gure ikasleei, gure herritar gazteei, beren etorkizuna hobetzeko beste modu bat ematen die, pertenentzia sozial zabalago baten kontzeptua.

Guri dagokigu errealitate hori ahalbidetzea eta hartara bideratzen ditugu ahaleginak, seguru baikaude nazioartekotzearen alde eginez gero etorkizuna irabaziko dugula.

José Iribas Sánchez de Boado.
Hezkuntzako kontseilaria
Nafarroako Gobernua.



AURKEZPENA

Pedro González Felipe

Nafarroako Eskola Kontseiluko burua

Lanbide Heziketa gizarte aurreratu baten garapenerako elementu estrategikoa dela esatea denok dakigun eta partekatzen dugun zerbait da. Eta, gainera, horri gehituko bagenio, gomendio, ondorio, erabaki eta jarraibide askoren bitartez, Europar Batasunak azpimarratu duela ikasketa horiek Europan gizarteratzeko, enplegurako eta garapen ekonomikorako politikaren ardatz bateratzaileak direla, ez genuke behin eta berriz egin den diskurtso bat besterik gogora ekarriko.

Espainiako Lanbide Heziketari dagokionez, oso esanguratsua da gizarteak "bigarren mailako" zerbait balitz bezala hartzen duelako eta askotan, gainera, eta horixe da kezkagarriena, baita hezkuntza agintariek ere, gizartean aurrerakuntza argiak eta politika ekonomiko eta instituzionaletan ondorio nabarmenak lortzen baditu ere.

Ez da hau Europar Batzordeak eta Europako Parlamentuak Lanbide Heziketaren, bizitzan zeharreko etengabeko ikaskuntzaren edo, langileek egiaztatutako laneko esperientziatik abiaturik, gaitasunaren ebaluazio ofizialeko prozesuaren arloan dituzten helburu eta kezketako asko hona ekartzeko unea. Hala ere, oinarrizko gertaera hau egiaztatu beharra dago: Europako herrialde gehienetan Lanbide Heziketaren sistema berri eta hobea eraikitzen ari da eta horretan ahalegindu beharko genuke, zalantzarik gabe.

Nafarroari dagokionez, ahalegin handia egin da Lanbide Heziketaren eta kualifikazioen gure sistemaren maila igotzeko, jakitun baikara horixe izan dela funtsezko oinarria denboran iraun duen garapen jasangarria lortzeko, Nafarroa landatarra erkidego industrial eta zerbitzuetako bilakatu duen ezinbesteko elementua, adierazle sozial eta ekonomiko guztietan indize handiarekin, gainera.

Gertaera horren bi adierazle eztabaidaezin dira azken urteotan gure Foru Komunitatearen hezkuntza sisteman Lanbide Heziketa egin duten ikasleen kopurua eta Lanbide Heziketako tituludunen lanbideratze-ratioak, krisia gorabehera, oso handiak izaten segitu dutenak.

Baina izan bada Nafarroako Lanbide Heziketaren garapenari dagokionez esparru jakin bat, nazio mailan modu baikorrean nabarmentzen gaituena, hots, gure LH nazioartekotzeko egin dugun apustu sendoa. Une honetan Nafarroak urtero 200en bat ikasle igortzen ditu atzerriko enpresetara praktikak egitera (Lantokiko Prestakuntza egiten duten ikasleen %10 gutxi gorabehera). Alderdi hori handitzen ari da norabide desberdinetan: Europar Batasuneko herrialdeetako ikastetxe aurreratuen eta gure ikastetxeen arteko harreman zuzenak errazten dira, irakasleen mailaren eguneratzea aitortutako ospea duten atzerriko ikastetxe eta enpresetan sustatzen da eta erakunde eta ikastetxeen parte-hartzearekin proiektu pilotuak garatzen dira.

Horrexek guztiak bultzatu gaitu Nafarroako Eskola Kontseiluaren IDEA aldizkariko beste ale bat, 42.a, Lanbide Heziketaren nazioarteko dimentsioari eskaintzera. Ale horretan izanen dituzu LHren inguruan Nafarroatik bultzatzen ari diren nazioarteko jardueren dosier zabala, egonaldiak kontatzen dituzten ikasle eta irakasleen esperientziak eta egonaldi horiek beren garapen pertsonal

eta profesionalari emandakoaren balorazioa eta, orobat, LHko ikastetxe askotatik Europako herrialdeekin bultzatu eta garatu diren lankidetza proiektuetako batzuen definizioa.

Era berean, aurreko aleetan bezala, kolaborazio asko eskaini dugu, besteak beste, ikasketa horietan murgildutako sektoreenak, sindikatuenak, Nafarroako ikastetxe batzuek ematen duten ikuspegia, ibilbide eta ospe luze eta sendotuko bi ikastetxetako zuzendariren artikuluekin eta, orobat, Futuro erakundearen zuzendariak idatzitako artikulua, Lanbide Heziketaren eta ekintzailetzaren bidezko garapen sozialaren garrantziaz hitz egiten duena.

Monografiko hau ixten dugu Nafarroako LHko profesionalen artean karismatikoenetako batekin, Tuterako ETI IIPko Carmelo Arriazu irakaslearekin. Esku artean dugun gaia azaldu digu, Europako proiektu, egonaldi eta elkarlan askotan izandako esperientziatik abiaturik.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiet aldizkari hau egiten lagundu digutenei, batez ere guztioi etorkizun hoberako ateak irekiko dizkigun Lanbide Heziketako eredu baten alde egin duten apustu sendoagatik.

Pedro González Felipe,
Nafarroako Eskola Kontseiluko burua.

SARRERA: NAZIOARTEKOTZEAK LANBIDE HEZIKETAN DITUEN GARRANTZIA, HELBURUAK ETA ERRONKAK.

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuko
Lanbide Heziketaren Zerbitzua

Azken 15 urteotan Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza esparru desberdinetan gehien eragin duen faktoreetako bat bere estamentuek nazioartera bideratzeko egin duten ahalegina da, Europako esparru amankomun bateko kide izateari bereziki lotua dagoena (horrek berekin dakar ezagutzen, laneko trebetasunen eta antolaketa sistemen arteko elkarrekintza).

Ikastetxeek beren lana Europa aldera irekitzeko behar horrek hezkuntza administrazioak behartu ditu nazioarteratzeko apustu hori bultzatuko duten mekanismoak abiatzera. Hori dela- eta, nazioarteko proiekzioa hezkuntza kudeaketaren instantzia askotan txertatu da, ikastetxeen nortasun-ikur bat gehiago balitz bezala.

Hartara, horri guztiari gehitu zaio Nafarroako Foru Komunitatearen Nazioartekotze Plana, laneko ildo estrategiko honen ikuspegi zeharkakoa ematen duena. Agentzia nazionalek kudeatzen dituzten programa sektorialen deialdietako oinarriak ezartzeko Europako Kontseiluak ezarritako gidalerroak ezinbesteko tresna modura oso kontuan izan dira gure erkidego osoko hezitzaile eta ikasle asko eta asko ezagutza, kualifikazioen gardentasuna, mugikortasuna eta berrikuntza sustatzen dituzten lankidetza sareetan sartzen joan daitezen.

Etengabeko Ikaskuntzarako Programaren helburuak hauexek dira (programa horrek 2013. urtera arte indarra izan du eta zehazki 2015. urtean bukatuko da):

- Europan ikasle eta irakasleen mugikortasuna kualitatiboki hobetzea eta kopuruan handitzea.
- Goi hezkuntzaren Europako erakundeen eta erakunde horien eta enpresen arteko lankidetza aldeaniztuna kualitatiboki hobetzea eta kopuruan handitzea.
- Goi mailako ikasketen lanbide kualifikazioen gardentasuna eta bateragarritasuna handitzea Europako LHko erakundeen artean.
- IKTetan eta etengabeko hezkuntzako zerbitzu, pedagogia eta praktiketan oinarritutako eduki berritzaileen garapenari laguntzea.
- Hezkuntzan eta, zehazki, Lanbide Heziketan praktika berritzaileen garapena eta transmisioa erraztea.

Horregatik guztiagatik, Europar Batzordeak Europar Batasuneko estatuak bultzatu ditu:

- Herrialdeen artean mugitzeko aukerak handitzera irakaskuntzaren, prestakuntzaren eta boluntarioen jardueren esparruetan eta ohiko gertakari bihurtzera.
- Europar Batasuneko gaur egungo programen helburuak erdiesteko neurriak hartzera hezkuntzan, gazterian, kulturan, herritartasunean eta ikerketan.
- Goi mailako adituen foroko lanak oinarri harturik, ahalegintzera gazte guztiek mugikortasun programetan parte har dezaten eta irakasle guztien mugikortasuna hobe dadin.
- Ekimenak maila batean baino gehiagotan bultzatzera, interesdunekin batera, mugitzeko aukerak handitzeko.

Era berean, gonbita egin zaie Europar Batasuneko estatuei eta Europar Batzor-

deari neurriak har ditzaten mugikortasunerako oztopoak kentzeko eta atzerrian emandako mugikortasun garaien onarpena bermatzeko. Zehazki, neurri hauek bultzatzen ahalegindu da:

- Mugikortasunaren norainokoa gazte guztiendako garatzea, alde interesdunen arteko koordinazio aktiboa erraztuz sektore publikoko laguntzen kudeaketa hobetzeko, Europako programen aukerak aprobetxatuz, laguntza gutxien duten gazteen beharrak kontuan hartuz eta mugitzeko aukera berriak sor daitezen bultzatuz.
- Baliabide desberdinak erabiliz mugikortasun programen gaineko informazio hobea ematea gazteei, beren familiei, irakaskuntzako profesionalei eta gazteria esparruko langileei eta behar diren Europako programen aplikazioa babestea.
- EBko programak betetzeko, finantza pizgarrien estrategia sortzeko eta mugikortasunaren ondoriozko ikaskuntzaren onarpena hobetzeko prozedurak erraztea.
- Mugikortasuna finantzatzea Europar Batasuneko finantza-tresna egokien bidez, hala nola funts estrukturalak, eta sektore publiko eta pribatuen finantzaketa bultzatzea, laguntza berezia emanez jatorri sozioekonomiko ez hain aldekoak edo berariazko premiak dituzten gazteei.
- Mugikortasun programetan Mugikortasunerako Kalitatearen Europako Kartaren printzipioen aplikazioa hobetzea, harrera baldintzei dagokienez praktika egokien trukeak bultzatuz, gazteei bizi eta lan baldintza duinak emanez eta, bereziki ikuspuntu linguistiko eta kultural batetik, mugikortasunerako prestatuz.
- Gazteen mugikortasuna hobeki ezagutzea estatistika eta azterlan konparatiboen bitartez, kultura, hezkuntza eta lanbidearen ikuspuntutik haren ondorio positiboak ere ebaluatuz.

LHKO IKASLE ETA IRAKASLEEN MUGIKORTASUNA: SARRERA, HELBURUAK, DATUAK ETA ELKARRIZKETA AZPIMARRAGARRIREN BAT.

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuko
Lanbide Heziketaren Zerbitzua

SARRERA

Adierazle batzuek erakusten dute beste ekoizpen esparru batzuekiko harremana sustatzen duten programek hobekuntza argia eragiten dutela lanbideratzea modu azkarrago eta kualifikatuagoan lortzeko, bai egonaldiak egiten diren herrialdeetan, bai Espainiako enpresetan –azken hauek oso positiboki baloratzen dute Europako beste enpresa batzuetan egindako prestakuntza praktikoa–.

Izan ere, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak arlo honetan egindako lanaren ondorio dira Lanbide Heziketako Leonardo da Vinci eta Erasmus deialdietako proiektuak kudeatzeko kalitate gutun bi.

Gainera, herrialde desberdinen arteko prestatzaileen arteko hurbilketa sustatzen duten proiektuak ezinbestekoak gertatzen dira europar dimentsioa prestakuntza zentroen eguneroko lanean gero eta hurbilago egon dadin eta hezkuntzako arlo desberdinetan txerta dadin.

Ildo estrategiko horren bidez erdietsi nahi diren helburuak hauexek dira:

- Ikasleei beste herrialde batzuetako ekoizpen-inguruneetan laneko esperientziak erraztea.
- Nazioarteko lan merkatuan lana lortzeko aukerak eskaintzea.
- Nafarroako irakasle eta ikastetxeen eta Europar Batasuneko beste herrialde batzuetako ikastetxe, entitate eta profesionalen arteko lankidetza sustatzea.
- Berrikuntza teknologiko edo didaktikoko proiektu instituzionalak garatzea, bi alderdientzat interesgarriak direnean.
- Hizkuntza eta lanbide gaitasunak hobetzea.
- Lankidetza eta parte-hartzerako Europako gune sozial eta profesionala sustatzea.

Hezkuntza Departamentuak ikasleak atzerriko enpresetara joateko sustatu dituen egonaldiak hiru hilabetekoak dira eta bi aldagai desberdin dituzte:

- Lantokietako prestakuntza modulua egitea, Lanbide Heziketako edozein titulu lortzeko ezinbestekoa,
- Praktika osagarriak egitea bere ohiko ingurunekoak ez diren baldintza soziolaboral eta kulturaletan.

Hala, etorkizuneko gure profesionalek ezagutza tekniko eta linguistikoak garatu eta hobetzen dituzte, lanbideko gaitasun eta konpetentziak hobetzen dituzte eta, bereziki, lanbideratzeko aukerak bultzatzen dituzte, dela gure Foru Komunitatean, dela harrera herrialdeetan.

Frogatu da Lanbide Heziketako ikasleak beste herrialde batzuetako lan inguruneetara mugitzea ezinbestekoa dela enpresaren eta gizartearen errealitate desberdinak modu hurbilago eta kontrastatuagoan ezagutzeko eta, aldi berean, gazteek Europako errealitatearekin jarrera irekiagoa izan dezaten lortzeko.

Aipatu ditugun proiektuen bidez Europara hurbiltzen gaituzten neurri guztien azpian dauden lehentasunetako bat hizkuntza gaitasunak hobetzea da, komunikazioa errazten dutelako eta lankidetzarako aukera berriak ematen dituztelako. Hori horrela izanik, hizkuntzak ikasteko batetik bestera mugitu diren eta enpresen ekoizpen inguruneetan hizkuntza trebetasunak hobetu dituzten ikasle eta irakasleek balio erantsia gehitu diote beren prestakuntzari eta horrek, segurtasun osoz, zuzenean eragin du ekoizpenean eta ezagutzan.

ZENBAIT DATU

Gorago esan dugun bezala, Lanbide Heziketako ikastetxe publikoetan soilik, 1.950 prestakuntza egonalditik gora egin dira Europar Batasuneko herrialdeetan eta horrek berekin ekarri du honako hauen arteko elkarlana:

- Ikasle eta irakasleen 1.950 egonaldi.
- Lanbide Heziketako 20 ikastetxe.
- 1.145 enpresa laguntzaile Europan.
- Egonaldiak koordinatzen dituzten 63 erakunde edo zentro.
- Destinoko 12 herrialde eta zernahi hiri.

Mugikortasun motak Lanbide Heziketan:

1.- Ikasleen mugikortasuna, EBko enpresetan praktikak egiteko Leonardo Da Vinci eta Erasmus programen bitartez.

Proiektu hauekin, laguntzak jasotzen dituzten ikasleek EBko enpresetan hiru hilabetez praktikak egiten dituzte. Proiektu hauek Europako funtsekin ordaintzen dira eta funts horiek Europako Hezkuntza Programen Erakunde Autonomoak urtero argitaratzen dituen deialdietan ageri dira. Erakunde horrek Espainiako erakunde guztien proposamenak aztertzen ditu proiektuak ebaluatu eta hautatzeko prozesu baten bidez. Ondorioak bi izaten dira: proiektu batzuek diru- funtsak eskuratzen dituzte eta beste batzuei esaten zaie ez dutela diru-funtsik eskuratuko behar diren laguntzak jasotzeko lehen proiektuen artean egoteko beharrezkoak diren kalifikazioak gainditu ez dituztelako.

Enpresetako egonaldiek ez dizkiete soilik ezagutza teknikoak ematen parte-hartzaileei. Egonaldietan beste alderdi hauek ere kontuan hartzekoak dira: hizkuntza desberdin bati aurre egitea, etxetik kanpo bizitzen ikastea, ezezagunekin ostatua eta bizipenak partekatzea, hiri berri batera egokitzea, herrialdeak desberdintzen dituzten aldaketa kulturalak onartzea, ohiturak eta antolaketa sozialerako formak errespetatzea, etab. Horrek guztiak berekin dakar ahalegina, sakrifizio espiritua, autoexijentzia eta nork bere buruarekiko konpromisoa hartzea eta, esperientzia hauetan parte hartzen duten gazteen heldutasunean eragina izanen du.
Azkenik, merezi du azpimarratzea, garrantzitsua delako, proiektu hauetako parte-hartzaileen enplegagarritasunaren hobekuntza, proiektu hauetan parte hartu duten ikasleekin enpresak harberagoak direlako.

2.- Irakasleen mugikortasuna, Leonardo Da Vinci programaren bitartez.

Proiektu hauekin, irakasleek enpresak edo prestakuntza zentroak ezagut ditzakete beren ezagutza teknikoak hobetzeko. Egonaldien iraupena aste batetik sei aste bitartekoa da eta eskolarik ez den egunetan edo irakasleak irakaslana egoki antola dezakeen egunetan egiten da.

Askotan esperientzia horien emaitzak irakaslanean aplikatzea izan da balio erantsirik handiena parte-hartzaileek lan egiten duten ikastetxeetan hezkuntzaren kalitatea hobetzeko ordu.

ELKARRIZKETA

Alicia Fernández Salinas

C.I. Agroforestal

Zerk bultzatu zintuen Europako beste herrialde batean egonaldi bat eskatzera?
Teknika berriak ikasi eta lan egiteko beste modu batzuk ezagutzeko aukerak.

Zer egin zenuen egonaldian?
Rotterdameko lorezaintzako enpresa batean hiru asteko prestakuntza egin nuen, Binder groenprojecten-en.

Ezagutza eta trebetasun profesional berririk lortu duzu egonaldian?
Bai, beti ikasten da. Holandaren ezaugarri geografikoak oso bereziak dira, ingurumenarekiko interesa oso handia da eta urarekiko harremanak behartu ditu lur metro karratu bakoitza kontrolatzera eta hori guztia berdeguneak proiektatu eta burutzeko moduan islaturik gelditu da.

Ezagutza hauetako baten bat irakaslanean aplikatzerik izan duzu?
Horretan ari gara. Bidaia programatu nuenean landare-estalkiak edo roof gardenak nola egin behar ziren jakin nahi nuen; hori zen nire interesik handiena. Enpresan nire tutore izan zena arduratu zen proiektuko fase desberdinak zein diren eta horiek nola egin ikus nezan, hala nola, estalkia zigilatzea edo bituminatzea, substratua gehitzea eta landareak jartzea, bai landaketen bidez, bai zohien bidez.

Eskolan ikasturte osoa daramagu landareak sortzen Agroforestal IIn dugun eraikin txiki batean landare-estalkia jartzeko asmoz. Aurrekontuarekin itzuli-mitzuli ari gara.

Egonaldian zehar bizi izan zaren gizartetik ezezaguna zenuen alderdiren bat deigarri gertatu zaizu?
Bitxikeria asko kontatzen ahal dizkizut, bereziki bizikleta garraiobide moduan erabiltzearekin zerikusia dutenak. Harrigarria da Holandak mugikortasun iraunkorraren alde egiten duen apustua, hemengoarekin inolako zerikusirik ez duena.

Egon zaren enpresan lan egiteko moduarekin harritu zara?
"Harritu" ez da hitza. Zernahi alderdik atentzioa eman zidan, baina kontuan izan behar da urte batzuk neramatzala administraziokoa ez den enpresa batean lanik egin gabe. Esanen dizut laneko erritmoa etengabea bada ere, hemen baino geldialdi gehiago egiten dela. Lanaldian zehar hemen baino gehiagotan egiten dira etenaldiak eta bulego teknikoan lanean egon nintzen egunetan etengabe etortzen ziren tea edo kafea eskaintzera; ezin katilua hutsa izan. Lanean langileek elkarri asko laguntzen diote, baita enpresa desberdinetako langileek ere, batez ere makineria astunaren edo garraio berezien erabilera errentagarri egiteko.

Deigarri egin zitzaidan beste alderdi bat nagusiaren eta langilearen arteko harremana izan zen; gurea baino horizontalagoa da. Ostiraletan, lana bukatu ondoren, enpresaburuak langile guztiak garagardo eta pintxo batzuk hartzera gonbidatu ohi zituen.

Egonaldiaren ondoren egin duzu beste harremanik Europan?
Bai. Ikastetxeko sei irakaslek prestakuntza egonaldi laburra egitea eskatu dugu, ERASMUS+ programako Irakasleendako mugikortasuna K1 ekintzaren bidez. Bildutako prestakuntza jardueretako bat enpresara itzultzea da, andeatutako eremuetan paisajismoko edo ingurumena berreskuratzeko proiektuak nola diseinatzen eta burutzen diren ezagutzeko. Han egon nintzenean bazuten dunak berreskuratzeko proiektu bat, hasierako fasean zegoena.

Praktikak egin nituen enpresan ez zioten aterik itxi beste irakasle eta ikasle batzuk prestakuntza egonaldiak egiteko aukerari.

Europako beste herrialde batean egonaldiak egiteko gomendioa eginen zenieke irakaskuntzako beste pertsona batzuei? Zergatik?
Bai, zalantzarik gabe. Oso esperientzia interesgarria izan da. Lehenik, beti zerbait ikasten delako, eta bigarrenik, ona delako batzuen eta besteen artean halako alderik ez dagoela egiaztatzea, Europako iparraldeko herrialde batzuek bestela sinetsarazi nahi badigute ere.

Rotterdameko erdialdeko eraikin baten gainean egindako baratzea erakusteko eguna, Iker Aramendia ikastetxeko irakaslearekin eta Rob Luyk enpresako tutorearekin.

El DakAkker en Schieblock

ELKARRIZKETA

Carlos Jordán Lasheras

Administrazioko eta finantzetako ikaslea ma ana sanz II-AMI ikastetxean. Praktikak 2011ko irailetik abendura bitartean egin zituen.

Zergatik erabaki zenuen egonaldia Europako beste herrialde batean egitea?
Jakitun nintzelako beste kultura eta gizarte batzuetatik ikastea garrantzitsua zela nire herrialdean abantailak izateko lehiakortasunari begira. Gainera, banekien zein zen Europar Batasunaren etorkizuna eta horrek Nafarroan eta Espainian nola eraginen duen.

Zer egin zenuen prestakuntza-aldi horretan?
Glyndwr University-ko Ingeles departamentuan administrari eta irakasle laguntzaile aritu nintzen eta, orobat, trukeak eta udako ikastaroak garatzeko nazioarteko departamentuan lankidetzan aritu nintzen.

Egonaldian ikasi zenuenetik, zer azpimarratuko zenuke?
Metodoak. Hori izan zen garrantzitsuena, arazoak ebazteko beste modu batzuk –hemen, Nafarroan beste modu batean ebazten genituen–, beste burokrazia mota bat, administrazio publikoaren mendekotasunik gabea, ia-ia. Halaber, boluntario lana balioesten ikasi nuen; boluntarioen lanak lanbide esperientziek baino balorazio hobea zuen CVan.

Zer gaitasun pertsonal (sozial, linguistiko, interkultural, etab.) garatu dituzu?
Gaitasun sozialak hobetu nituen zurea ez den beste ingurune batean egoteak eskatzen duen malgutasunaz ohartu nintzenean. Kultura arteko gaitasunei dagokienez, nire inguruaz nuen ustea errotik aldatu zen konturatu bainintzen ezin zela deus ere egintzat eman eta ez zela topikoetan sinetsi behar. Hizkuntzaren aldetik, ingelesez amets egitera ere iritsi nintzen, integratua nengoen seinale. A2 mailarekin joan eta C1 mailarekin itzuli nintzen.

Enpresan praktikak egin zenituen. Esperientzia horretatik eta, bereziki enpresa hartatik, zer gustatu zitzaizun gehien?
Erresuma Batuko unibertsitateei laguntzak murrizten ari zitzaizkien bitartean egonagatik ere eta nire egonaldia aldi baterakoa izanik ere, unibertsitatearen barnean gora egin ahal izan nuen eta taldeko gainerako kideak bezain baliotsua nintzela erakutsi zidaten. Hori gustatu egin zitzaidan.

Ingurune sozialean, zorte handia izan nuen nire egoera berean –trukean– zeuden unibertsitateko ikasleez inguraturik egon nintzelako eta nazioarteko talde bat antolatzeko aukera izan nuelako, elkarrekin harremanak egiteko eta espainiarren artean espainieraz hitz egitea saihesteko. Benetan konturatzen zara alemanak, frantsesak, italiarrak edo ingelesak ez direla espainiarrak ez bezalakoak.

Hobetu dira zure lan itxaropenak? Uste duzu zure esperientziak balioko dizula etorkizuneko lanerako?
Askotarako balio izan dit. Gaur egun nire enpresa propioa kudeatzen ari naiz eta nazioarteko StartUp ekitaldimota orotan parte hartzen dut eta konkistatzeko gai izanen ez nintzatekeen merkatuetara iristea lortu dut, erraterako, NASAren proiektu espazialetara. Eta hori guztia hasi zen berriki arte Erresuma Batuan soilik egiten zen produktu batekin. Prestakuntza egonaldian ezagutu nuen produktu hori garatzeko aukera izan dut, inguru ezezagunetan murgiltzeko lortu nituen ezagutzei esker.

Europako beste herrialde batean egonaldia egiteko gomendioa eginen zenioke beste norbaiti? Zergatik?
Jakina! Garrantzitsua da goazen erritmoan. Uste dut ezinbestekoa dela Europa guretako zer den jakitun izatea, hemendik gutxira ez baikara ez nafar ez espainiar izanen, europar baizik. Hori dela-eta, ahalik eta etekinik handiena atera behar diogu eta hori lortuko dugu baldin eta gure auzokoek gauzak nola egiten dituzten jakiten badugu.

HOTEL
PUERT L CAMINO
club
navarra
puerta
de Europa

NAZIOARTEKO LANKIDETZAKO BESTE PROIEKTU MOTA BATZUK

Gorago azaldutako mugikortasun programez gainera, Nafarroako Gobernuak, dimentsio transnazionalak hartu duen garrantziaz jakitun, beharrezkoak diren baliabideak jarri ditu Europako programetan zenbait proposamen aurrera ateratzeko. Besteak beste, honako hauek:

- Berrikuntza proiektuak, erakundeei aukera eman diena ekoizpeneko eta prestakuntzaren kudeaketako zernahi esparrutan azken berritasunen berri izateko. Proiektu hauekin egin nahi izan da:
  - » Batera lan egitea Lanbide Heziketarekin lotutako bestelako erakunde edo prestakuntza zentroekin.
  - » Prestakuntzako eremuak hobetuko dituzten aukera berriak aurkitzea.
  - » Lanbide Heziketaren kalitatea hobetzean eragina izanen duten produktu edo metodologiak garatzea.
  - » Nazioarteko lankidetzarako loturak sendotzeko balioko duten lankidetzarako aukera berriak irekitzea etorkizunean.

- Lanbide Heziketako ikastetxeen eta hezkuntza esparruko erakundeen arteko harremanerako elkarte estrategikoak, prestakuntza eremuren batean eduki berritzaileak garatzen dituzten produktu edo ideiak garatzeko helburuarekin. Proiektu hauekin egin nahi izan da:
  - » Zenbait herrialdetako erakundeek eta prestakuntza zentroek osatutako elkarteen partaide izatea, LHko ikastetxeetako prestakuntzan ikasmaterialak edo metodo berritzaileak sortzeko.
  - » LHko ikastetxeek Lanbide Heziketa ulertu eta antolatzeko bestelako moduekin harremanak izateko aukerak erraztea.
  - » Harreman aukera berriak irekitzea ikasleen eta irakasleen mugikortasuna eta LHko alderdi desberdinak hobetzen laguntzen duten ezagutzen transferentzia sustatzeko.
  - » Gaitasunen egiaztapenaren eta egiaztapen horrek LHko ikastetxeak ukitzen dituen bizitza sozial eta laboralean dituen ondorioen gainean Europako araudietan dagoena jakitea.

- Erakundeen arteko lankidetza proiektuak, esaterako, Comenius Regio, edo erakundeak elkarretara hurbildu dituzten programa mugakideak, hezkuntza helburu amankomunetan elkarlanean aritzeko eta lanbide profil desberdinen enplegagarritasun eta berrikuntza aukerei hurbiletik begiratzeko. Proiektu hauen helburua da beste herrialde batzuetako erakundeen ezagutza hobea sustatzea hurrengo helburuak lortuko dituzten jardueretan eragin ahal izateko:
  - » Lan, hezkuntza edo kultura munduari dagokionez antzeko ekimenak dituzten herrialde edo eskualdeen artean lankidetza-harreman estuagoa.
  - » Prestakuntza zentroetara hurbiltzea esperientzien trukaketa eta hizkuntzen ikaskuntza errazteko.
  - » Ikastetxeen eta Hezkuntza Departamentuaren Europako harremanak handitzen dituzten sare berrietan parte hartzeko aukera, nazioarteko esparruko jarduerak finantzatzen dituzten bestelako proiektuetarako.

EMAITZAK.

Egindako mugikortasun-kopurua egiaztatzeaz gainera, merezi du egindako proiektu-mota desberdinak abian jartzearen ondoriozko emaitza batzuk hemen azpimarratzea. Adibide batzuk:

- Equal ekimenaren proiektuan parte hartzeak berekin ekarri zuen Energia Berriztagarrien heziketa ziklo berri bat abian jartzea eta horrek jarraipena izan zuen Imarkoainen ireki zen erreferentzia nazionaleko ikastetxearekin.
- Leonardo Da Vinci programako proiektu batean parte hartzeak Enpresa Simulatuko gelen instalazioa erraztu zuen eta horri esker gaur egun ikastetxe askok praktika simulatuak egiten dituzte beren ikastetxeetan ezagutzak benetako enpresa batean praktikatzen ariko balira bezala.
- Energia berriztagarrien arloan berrikuntza transferitzeko proiektuan parte hartzeak zenbait ikasmaterial ekarri zituen. Bost herrialderen lankidetzaren emaitza izan ziren, bi urtez prestatzen egon eta proiektuaren amaierako emaitza modura sartu behar ziren eduki amankomunen gaineko adostasunetara iristeko behar ziren erabakiak hartu ondoren.
- Tuterako ETI IIPk berrikuntza transferitzeko gidatutako beste proiektu batean parte hartzeak berekin ekarri zuen ikastetxearen beraren ideia berritzaile bat praktikara eramatea, hau da, on line erako plataforma bat sortzea.

ETORKIZUNEKO ERRONKAK ETA ERASMUS+ BERRIA.

Europako prestakuntza programa berria, 2014tik 2020rakoa, Erasmus + deitzen da eta haren gidalerroetan alderdi hauek azpimarratzen dira:

- Hezkuntza politiken ikusmolde instituzionala.
- Mugikortasunaren kalitatearen eta onarpenaren garrantzia.
- Langileen mugikortasunari laguntza ematea sektore guztietan.
- Sektore arteko lankidetza hezkuntzan, prestakuntzan eta gazterian.
- Hizkuntzen ikaskuntzarako laguntza eta ebaluazio sistematikoak.
- Programaren laguntzarekin garatutako hezkuntza baliabide guztietara sarbide irekia.
- Programaren eta finantzatutako proiektuen emaitzak partekatu eta ustiatzeko.
- estrategiak garatzea, hedapen plataforma barne.
- ANen eta Agentzia Betearazlearen arteko lankidetza indartzea, emaitzen hedapenerako.
- Egiazkotasun adierazleak erabiltzea, programaren hasieratik.
- Aukera gehiago Lanbide Heziketako eta Goi Hezkuntzako ikasleek
- enplegagarritasuna handi dezaten, praktikaldien bitartez.
- Kalitatearen hobekuntza sustatzea sektore guztietan, langileen mugikortasunaren eta elkarte estrategikoen bitartez.
- Enfasi handia sektore arteko elkarte estrategikoetan eta IKTetan.
- Ekintza berritzaile berriak enplegagarritasuna eta enpresa espiritua hobetzeko.
- Hezkuntza politiken erreforma sustatzeko bide berriak.

PARENTS MATTER

GURASOAK ERE BAI

LAS FAMILIAS TAMBIEN CUENTAN

Serxia Lage

Donapea IIPko taldea[1], Nafarroako Gobernuko Lanbide Heziketaren Zerbitzukoekin batera, "Parents Matter-Las familias también cuentan-Gurasoak ere bai" europar proiektua buru-belarri lantzen egon da bi urte baino gehiago. Proiektu horren hasierako helburua zen Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentutik familia-inplikazioan lantzen ari ziren jardunbide egokiak indartzea, metodo berriak sartzea eta, azken finean, egiten ari zenaren berri ematea gure inguru hurbileko LHko eta Bigarren Hezkuntzako beste ikastetxe batzuei. Hala ere, proiektu honen garapenak hasierako itxaropenak asko handitu ditu eraginari, irismenari eta hedapenari dagokienez.

Proiektu honen ekarpenik funtsezkoenetako bat da, LHko ikastetxe batean, hezkuntza ingurunearekin zerikusirik ez duten gizarte-eragile desberdinak bildu eta familiendako irisgarri jartzea, haiekin harreman zuzena izateko aukera emanez gurasoei (bestela eginez gero ezinezkoa gertatuko zitzaien). Hala, lortu da LHren ingurunetik urrun dauden eragileek ikastetxe, ikasle eta familien errealitatea ezagutzea eta irisgarriagoak, ezagunagoak eta lagunkoiagoak gertatzea haiendako. Bestalde, lan, enpresa eta eskolako erakundeekin komunikatu eta harremanetan jartzeko bide zuzenak ireki dira LHko familia eta ikasleendako. Proiektu honi esker, Lanbide Heziketak, oro har, eta Donapea IIPk, bereziki, oihartzun handia izan dute komunikabideetan eta horrek balio izan du, besteak beste, Lanbide Heziketako prestakuntza eskaintza ezagutzera emateko eta Lanbide Heziketaren aldeko eragin sozial baikorra sortzeko. Familiek asko lagun dezakete gazteen enplegagarritasunean, batez ere familiaren barnean eskuratzen diren balio pertsonalak eta bestelako gizarte trebetasunak irakatsiz; kontuan izatekoa da lan munduak eskatu eta oso kontuan izaten dituela balio horiek.

Gure inguru hurbilean ikasketak behar baino lehenago uztearen arazoa ez da beste herrialde batzuetakoa bezain larria, nahiz eta gazteak lanbideratze arrakastatsu batetik urruntzen dituzten beste zergati batzuk antzeman diren. Baiezta dezakegu, enplegua lortzea zailtzen duten arrazoi exogenoak gorabehera, familiek beren seme-alaben ikasketen gainean duten ezagutza zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta kontseilu hobeak emateko aukera izanen dutela, okerreko hautaketak eta ikasketak behar baino lehenago uztea saihestuko dutela. Bestalde, gurasoek lan merkatuak eskatzen duenaren gaineko informazio ona badute, errazagoa izanen da beren seme-alabei Lanbide Heziketako ikasketak aukeratzearen gaineko ikuspegi errealistagoa transmititzea, izan ere eskakizun horiek beren karrera orientatu nahi duten mailarako beharrezkoak dira.

Parents Matter proiektuan sortutako materiala eta proiektu horretan parte hartu zuten pertsonen esperientzia kontrastatua ikastetxe eta erakundeen eskura jarri da, hain zuzen ere lanean sartu aurreko etapetan familia-inplikazioko protokoloak sortu eta indartu nahi dituztenen eskura. Biziki interesgaria iruditzen zaigu Lanbide

[1] Donapea IIPko Parents Matter lantaldeko kideak: Serxia Lage, Nicolás Uriz, Rosa Caballero, Miryam Arteaga eta Fermín Casares.

Heziketako sektorearen eskari zahar bat delako, hau da, lan merkatuko eragileekin ezarritako itun-sareak beste ikastetxe batzuei ere irekitzea.

Azkenik, proiektuaren faktore diferentziala, hots, proiektuaren nazioarteko dimentsioa, azpimarratu nahi dugu. Sortutako jarduerak Europako sei herrialdetan eta Turkian testatu dira. Horrenbestez, uste dugu behar bezala egiaztaturik gelditu dela jarduera horien transferigarritasuna eta egokigarritasuna eta edozein ikastetxe eta erakundetan aplikatzeko modukoak izanen direla.

AURKEZPENA ETA AURREKARIAK.

Parents Matter-Las familias también cuentan-Gurasoak ere bai proiektua Holandako Roc Midden Nederland ikastetxeak sustatutako Berrikuntza Transferitzeko Programaren (TOI) uzta da eta hartan honako ikastetxe eta erakundeek parte hartu dute:

- Consorzio degli Istituti Professionali. Sassuolo (Modena). Italia.
- Fondazione Ceis Onlus. Italia.
- Koning Willem I College. Hertogenbosh. Holanda.
- Menemen Girls Technical and Vocational High School. Izmir. Turkia · Cambridge Regional College. Erresuma Batua.
- Kent + McGill. European & UK Education Consultancy. Erresuma Batua.
- City of Munich Department of Schooling and Education Vocational School for Career Preparation. Munich. Alemania.
- Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua. Espainia.
- Donapea Ikastetxe Integratu Politeknikoa. Iruña. Espainia.

Parents Matter TOI proiektua 2011ko abendutik 2013ko urrira bitartean garatu zen, 2010eko abendutik 2012ko ekaina bitartean egindako Parents' Involvement Works Leonardo Da Vinci elkarteen proiektuaren jarraipen eta zabalpen moduan. Proiektu horren helburua da jarduerak diseinatzea Lanbide Heziketako ikastetxearen eta ikasleen familien arteko harremana sendotzeko, bereziki zailtasun gehien izan dezaketenen artean, esaterako, etorkin jatorriko familiekin.

Proiektu hau sustatu zuen Roc Midden Nederland erakundeak behaketa hau izan zuen abiapuntu: gazteek, bereziki etorkin jatorrikoek, ez dituzte Lanbide Heziketako ikasketak zuzen aukeratzen, dela ezagutzen ez dituztelako, dela laneko merkatuak eskainitako lanbide eta aukera batzuen gaineko uste okerra dutelako. Horren ondorioz ikasketak uzten dituzte (Lanbide Heziketan matrikula egiten duten bost ikasletik gutxi gorabehera batek ikasketak uzten ditu titulua lortu gabe). Beren etorkizun profesionala aukeratzerakoan, ikusi da ikasle horiek gehiago jotzen dutela aholku bila beren gurasoengana, ikastetxeko ikasgelako tutoreengana edo orientatzaileengana baino gehiago. Familiek rol ezinbesteko eta baikorra betetzen dute eta bete behar dute, baina soilik informazio zuzena badute. Hala ere, ikastetxeetan ikusitakoak erakusten du informazio gutxi duten familiek akatsak egiten dituztela beren seme-alabak bideratzerakoan, esate baterako, beren seme-alaben nahi edo gaitasunak kontuan hartzen ez dituzten itxaropenak haiengan jarriz edo gizarte estatus handikotzat dituzten lanbideei lehentasuna emanez.

Bestalde, Europar Batasunaren barnean mugikortasuna handitzeak Europako ikastetxe askok sistema eta kultura desberdinetako ikasleei egokitu eta haiei laguntza eman beharra ekarri du. Familia horietako asko tokiko biztanleen aurrean ahultasun egoeran daude edo ez dute haien aurrean aukerarik, hizkuntzarekin zailtasunak dituztelako edo ez dutelako harrerako hezkuntza sistema ezagutzen.

HELBURUAK ETA EDUKIA.

Parents Matter proiektuaren helburua da familiek ezagutu eta ulertzea zer eginkizun duten eta zer aukera sor daitezkeen hezkuntzan, prestakuntzan eta enpleguan.

Familien konpromisoa familiekin harremana sortzeko asmatutako praktika berritzaileen bidez lortu nahi da, bestela eginez gero ez baitzen erraza izanen hori lortzea.

Parents Matterrek hiru zati ditu:

1. Familiak barne hartzen dituen ekintza planaren eredua, familia-inplikazioko protokolo baten adibide partikular batekin proiektuko bazkide diren herrialde bakoitzeko ikastetxean.
2. Gurasoak eta beren seme-alabak ikastetxean edo familiek modu aktiboan parte hartzen duten edozein erakunde edo elkartetan aktiboki inplikatzeko erabil daitezkeen jarduerak.
3. Ikasleei beren etorkizun profesionala aukeratzen laguntzen dieten profesionalak eta familiak laguntzeko jarduerak.

Ikastetxeko ekintza plana edo protokoloa erabil dezakete familiak erakartzeko, inplikatzeko edo laguntzeko planik ez duten ikastetxeek. Era berean, ikastetxeek erabil dezakete jadanik dituzten politikak egunean jartzeko. Ikastetxeko protokolo batek benetako eragina izateko, garrantzitsua da alde guztiak inplikatzea, hala nola, irakasleak, tutoreak, ikasleak, familiak eta Lanbide Heziketako etapak ikaslez hornitzen dituzten eskolak edo institutuak. Hartara, politika eredu hau soilik gida bat da, familien inplikazioa lortzeko funtsezkoak izan eta aldez aurretik eztabaidatu eta onartu diren elementu desberdinak ziurtatzeko balio duena. Ikastetxeko protokoloa bukatutzat emateko, alde guztiek helburuak zehaztu dituzten prozesu bat burutu beharko litzateke.

Parents Matter baino lehenago, Nafarroako LHko ikastetxe gehienek bazuten familien inplikaziorako protokolo bat. Hala ere, proiektu honi esker gurasoengan eta hezkuntza esparruko zenbait profesionalengan prestakuntza eta informazio gabeziak antzeman dira. Gabezia horiek, bereziki, lan munduarekin eta familiek enplegu baten hautagaiaren profil profesionalari gehitzen ahal dizkioten balioekin lotutakoak dira.

IKASTETXEKO POLITIKA HONEN ONURAK ETA ONURADUNAK.

Ikasleendako onurak:
Errendimendu akademiko handiagoa, konfiantza eta segurtasun handiagoa eurengan, gizarte trebetasun gehiago, enplegagarritasunerako eskatutako gaitasunak hobeki ulertzea.
Familiendako onurak:
Ikaslearen ibilbide profesionalean modu baikorrean inplikatu eta eragiteko aukera, informazio gehiago eta parte-hartze handiagoari esker.
Ikastetxearendako onurak:
Klaseetara gehiagotan bertaratuz gero ikasleek ez dute eskola hainbestetan utziko eta, horrenbestez, ikasketetan gora egiten dutenen tasa handituko da.
Irakasleendako onurak:
Familiekin komunikazio hobea eta emaitzen gaineko erantzukizun partekatua, ikasleei emandako laguntza indartzen duen
Lan merkaturako onurak:
Hautagai kualifikatuak enplegurako behar diren gaitasun pertsonalen ezagutza handiagoarekin.

FAMILIEN INPLIKAZIOA SUSTATZEN DUEN IKASTETXEKO POLITIKA DISEINATZEKO ESTRATEGIAK.

1. Ikastetxeko politikaren garapena prestatu eta planifikatzea:
- » Ekimena hartzea, familien parte-hartzearen garrantziaren gaineko txosten laburra idatziz.
- » Txosten hori ikastetxeko zuzendaritza taldearekin edo erabaki-organo batekin aztertzea.
- » Ikastetxeko zuzendaritza taldeak edo erabaki-organoak prozesua hasi eta lagun dezan uztea.

2. Ikastetxeko politikaren garapena:
- » Profesionalen/eztabaida-taldearen debatea antolatzea.
- » Termino nagusiak argitzea.
- » PDCA (Planifikatzea-Egitea-Egiaztatzea-Jardutea) metodoa aurkeztea.
- » Zirriborro bat idaztea.

3. Aurkezpen jardunaldi bat antolatzea.
- » Zirriborroa hezkuntza erkidegoko kide guztiei ezagutzera ematea.

4. Ikastetxeko politika onartzea.
- » Inplikatutako alde guztiekin landu eta adostea politika.

5. Lerro estrategikoak.
- » Erabakitzea zer jarduera sartu nahi den.
- » Jarduera plana prestatzea.

6. Hedapena.
- » Jarduketa protokoloaren behin betiko bertsioa aurkeztea eta ikastetxearekin elkarlanean ari diren aliantza eta erakundeei argibideak ematea.

7. Jarduketa.

8. Ebaluazioa.
- » Ebaluazio sistema bat ezarriko dela bermatzea. Egiaztapen-zerrenda bat (checklist) sartu dela egiaztatzea.
- » Agiri hori urtero berrikusi behar da.
- » Ikastetxearen jarduketa-politika etengabe kontrolatu eta berrikusi behar da eta horrek hezkuntzaren kalitatea kudeatzen laguntzen du.

Checklist edo egiaztapen-zerrenda batek ikastetxeko politika garatzeko beharrezkoak diren ataza guztiak betetzen lagunduko du. Hala egiten bada une oro ikuspegi orokor on bat izanen da.

INPLEMENTAZIOA.

1. Lege esparrua, lege orientazioak eta erreferentziak

» Zure ikastetxeko eztabaida taldeak lan egin du praktika onen kode profesionalak, legeria orokorra eta lege orientazioak errespetatuz?

» Zer adin arte da nahitaezkoa eskolatzea?

» Ikastetxea beharturik dago jadanik helduak diren ikasleen familiei informazioa

» ematera?

» Ikastetxeak zer kalitate prozedura bete behar ditu?

2. Emigranteak

» Kontuan izan ditu tokiko emigranteak?

» Harremanetan jarri da emigranteen erkidegoekin?

» Helburu taldearen azterketa: nolakoak dira gure ikasleen familiak (hezkuntza, lana, naziotasuna)?

3. Organizazioa

» Zein dira zure organizazioaren ezaugarri bereziak?

» Badu aski baliabide?

» Familien parte-hartzeari dagokionez, berariazko zer jarrera ematen da zure ikastetxean?

» Familiek ikastetxean duten parte-hartzeari dagokionez, zein da gaur egungo egoera?

4. Informazioa hedatzea

» Egiaztatu ikastetxearekin zerikusia duten erakunde guztiei eman zaiela informazioa. Hauetxei:

- Orientabide profesionalerako zentroak.
- Enplegu agentziak.
- Emigrante elkarteak.
- Eskolako agintariak.
- Hezkuntza administrazioak.
- Guraso elkarteak.
- Kanpoko prestakuntza hornitzen duten bazkideak.
- Ugazaben elkarteak.

IKASTETXEKO POLITIKAREN ADIBIDE BAT: IRUÑEKO DONAPEA IKASTETXE INTEGRATU POLITEKNIKOA.

Donapea IIPren hezkuntza politikaren funtsezko helburua da gizarte egoera ahuleko inguruneetan bizi diren ikasleen aukera akademikoak hobetzea, bereziki zailtasun sozioekonomikoak dituzten familietatik datozenenak. Dauden aukeretan onena lortu ahal izateko, garrantzitsua da hezkuntza prozesuan tartekatutako eragile guztiek modu estuan aritzea elkarlanean.

Familien inplikazioari dagokionez, Donapea IIPren ikastetxe-politika honen bitartez hezkuntza erkidegoko interes-talde guztien (ikasleak, irakasleak, familiak, administrazio publikoak, enpresak…) harremana hobetu nahi da. Donapea IIPk familiak inplikatzeko prestatutako ekintza plana kudeaketa-talde desberdinen antolaketan oinarritzen da. Talde horiek ildo nagusiak ezartzen dituzte, inplikazio hori ikastetxean sustatzen duten estrategiak ezartzeko beharrezkoak diren baliabideak eskolari ematen dizkiotenak.

Donapea IIPk, Nafarroako LHko ikastetxe gehienek bezala, kalitate sistemarekiko konpromisoa izenpetu du. Sistema horren arabera ikastetxeko politika guztiak Misioan, Bisioan eta Balioetan (MBB) oinarritzen dira. Hartara, garrantzitsua da ikastetxeko organigrama ezagutzea eta hartan zuzendaritza taldea, departamentuak, orientazio akademiko eta laboraleko departamentuak eta irakasleen klaustroa non dauden jakitea.

Lanbide Heziketako ikastetxeetan eta, bereziki ikastetxe integratuetan, bi orientazio-zerbitzu mota ematen dira: irteera akademiko eta profesionalez, orientazio psikopedagogikoaz eta alderdi sozioedukatiboez Orientazio Departamentua arduratzen da; eta ikasleei lan merkatuan sartzeko orientabideak emateaz, enplegu-hobiez edo ekintzailetzari laguntza emateaz Lanerako Prestakuntza eta Orientazioko Departamentua.

Edozein kasutan ere, familiek eskolako bizitzan izan beharreko inplikazioa, ikastetxeko estamentu guztietan zeharkakoa bada ere, familiekin front line erako rolak betetzen dituztenek beren gain hartu behar izaten dute, hau da, familiekin lehen harremana izaten dutenek, erreferente batekin identifikatu dituztelako eta haiekin konfiantza harremana mantentzen delako: tutoretzek, orientazio zerbitzuek eta zuzendaritza taldeek.

Parents Matter proiektuko edukiaren bigarren eta hirugarren zatian bi jarduera multzoren prestaketa sartzen da, ekintza talde bakoitzeko protagonistek agerian uzten dituzten beharrei erantzuteko –talde horien parte-hartzea eta familiekin duten lankidetza ezinbestekotzat jotzen dira–.

Horregatik erabiltzen ditugu familiak hezkuntza inguruaren barneko eta kanpoko eragileekin zuzenean harremanetan jartzeko estrategiak eta horri esker daukagu bestelako balioespen tresnen bitartez hautemandako gabezien ikuspegi erreal eta zehatza.

Horrelaxe egiten ditugu gure ikastetxean familien eta ikasleen eta zenbait arlotako profesionalen artean aurrez aurreko elkarretaratzeak. Arlo horien artean daude lan merkatuko profesionalak,

Hezkuntza Administraziokoak, sindikatuetakoak, ikastetxeetako orientatzaileak eta lan munduko orientatzaileak.

Parents Matter proiektuan garatutako hitzaldi eta mahai-inguruak lantaldeekin dinamizatu dira eta horietatik ondorio hauek atera dira:

- Informazio argi eta kontrastatuaren beharra.
- Egiaztatu da familiaren eragina ikastetxeari eta, bereziki, laneratzeari dagokionez.
- Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxeen lana modu bateratuan eta koordinatuan ahalik eta lasterren egiteko beharra.
- Hauteman da ikastetxean familiengandik hurbil dagoen norbait behar dela.
- Komeni da tutoreek eta orientazio-taldeek enpresekin batera lan egitea.
- Enpresek LHko ikastetxeetan irakatsitako lanbide profilak ezagutu behar dituzte eta, bestalde, ikastetxe eta ikasleek enpresak eta lan merkatua ezagutu beharko lituzkete.
- Ikasleen artean konfiantza eza dago laneko merkatuarekin eta hori espiritu ekintzailerik eza bilakatzen da.
- Etengabeko ikaskuntzaren garrantzia baieztatu da.

Lantaldeek afera honetan tartekatutako eragile guztiek garatu beharreko jardunbide egokien katalogoa iradoki dute:

- Protokoloak ezartzea ikasteko zailtasunak dituzten ikasleak ahalik eta lasterren hautemateko.
- Hezkuntza sistemaren aurreko mailetan Lanbide Heziketaren gaineko informazioa ematea.
- Ikastetxeetako orientazio taldeen eginkizunak indartu eta egokitzea.
- Irakasle, hezitzaile eta orientazio taldeei prestakuntza ematea familiei prestakuntza emateko gai izan daitezen.
- Ikasleak akuilatzea etengabeko ikaskuntzan murgil daitezen, behin graduatu ondoren.
- Familiak gonbidatzea ikastetxeko webgunean parte har dezaten. Familien foroa sortzea.
- Familiek eta ikastetxeak batera lan egitea zeharkako gaitasunak sendotzeko (komunikatzeko gaitasuna, laneratzeko gizarte trebetasunak, taldean lan egiteko gaitasuna...).

Hautemandako beharrak eta proposatutako iradokizunak zein diren ikusirik, jarduera sorta hau prestatu dugu, bi multzotan banaturik:

1. Familien prestakuntzara bideratutako jarduerak, beren seme-alabei lan mundurako igarobidean orientabideak modu trebean eman diezazkieten.
2. Orientazioko profesionalendako diseinatutako jarduerak.

ONDORIOAK ETA ETORKIZUNEKO IKUSPEGIAK.

Parents Matter proiektuak aukera eman digu Lanbide Heziketako eskola etapan ezezaguna den kolektibo batekin, familiekin, lan egiteko. Hezkuntza sistemako aurreko etapetan gurasoak etengabean presente badaude ere, ez da hala gertatzen LHn, beharbada ikasle gehienak adinez nagusiak direlako, eta familien iritzia ez da kontuan hartzen. Horrek ekarri du LHko ikasketak ezezagunak izatea eta gutxi baloratzea.

Azterlan askok frogatu dute[2] familien inplikazioak eragina duela ikasleen emaitza akademikoetan eta gaitasun psikoemozionaletan. Proiektu hau egiaztapen horretatik abiatu da eta Europako bi estrategia garrantzitsu lagundu nahi ditu: gazteen langabeziari aurre egiteko neurriak eta hezkuntzan eta prestakuntzan Europako lankidetzarako esparru estrategikoa (ET 2020). Beraz, ikus daiteke proiektu honen emaitzek eta ekarpenek indarra dutela.

Lanbide Heziketako ikasle gehienak adinez nagusiak badira ere, ezin ukatuzkoa da ikasle horien familiek haien euskarri ekonomiko eta emozional modura rol garrantzitsua betetzen segitzen dutela. Gero eta maizago etortzen dira gurasoak Lanbide Heziketako ikastetxeetara beren seme-alaben laneratzearen gaine-



ko laguntza eskatzera. Proiektu honekin familiendako berariaz diseinatutako laguntza- eta orientazio-neurriak eskura izateko beharrari erantzun nahi izan zaio. Familiei lanbide orientazioan duten eginkizun aholkuemailea onartuz eta haiekin batera lan eginez, sinergiak sortzen dira ikasleak lan merkatuaren aurrean modu objektiboagoan kokatzen laguntzeko eta, azken finean, lana bilatzerakoan emaitza hobeak lortzen laguntzeko.

Herrialde bazkide guztiek gurasoak ikastetxera erakartzeko jardunbide egokiak eta estrategiak sortzeko lanak elkarrekin egin dituzte eta horren emaitza izan da familiak benetako protagonista bihurtu direla eta krisi ekonomikoaren garai honetan hitza hartu dutela beste kolektibo batzuei orientabidea eskatzeko, beren seme-alabei ekarpena egin ahal izateko eta, bukatzeko, ikasle horiek laneratze egokia lor dezaten.

Proiektu honen ardatzetako bi, hezkuntzaren gaineko Europako araudian ageriagerian daudenak, honako hauek dira: hezkuntzaren eta lan munduaren arteko loturak estutzea, eta ekitatea, aukera berdintasuna, gizarte kohesioa eta herritartasun aktiboa sustatzea. Parents Matterren testuinguruan, parte-hartzaile guztiek maila berean lan egin dute eta ondorio baliotsuak egin dituzte. Taldeko lansaioetan, familiek eta ikasleek bereziki baloratu dute beren kezkak zuzenean azaldu ahal izatea enpresa munduko, sindikatuetako eta hezkuntza eta laneko administrazio publikoetako ordezkari garrantzitsuei. Bestalde, erakundeetako ordezkariendako oso aberasgarria izan da arazoen berri zuzenean izatea eta ikastetxeen errealitatera hurbildu ahal izatea. Jardueren diseinuan eta lantaldeen banaketan, prestakuntzatik enplegura igarotzeko prozesuan tartekatutako kolektibo guztien heterogeneotasunari eta ordezkagarritasunari bereziki erreparatu zaio.

Emaitza modura, esan dezagun lortu dugula LHko gure ikastetxean elkartzea gurasoak, gure probintziako sektore ekonomikoko ordezkariak (Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioa), lan sektoreetakoak (Nafarroako eta Estatuko enplegu bulegoak, sindikatuak, ekintzaileak, enpresak), Bigarren Hezkuntzako eta LHko orientatzaileak, irakasleak... gaur egun interesekoak diren eta gure komunitateko familiak kezkatzen dituzten gaiak eztabaidatzeko. Elkarretaratze horren berri eman da Azkeneko balio erantsi honekin batera –proiektuaren hasierako helburua ere zena–, oso pozik gaude familiak, ikastetxea eta sektore sozial eta ekonomikoak helburu amankomun bat lortzeko harremanetan jarri ditugulako. Uste dugu lan honen fruituak ez direla ernatzen besterik hasi eta lerro hauen bitartez arlo honetan interesa duten erakunde guztiak proiektu hau eta materialak erabiltzera animatu nahi ditugu, familiak Lanbide Heziketako ikastetxeen bizitzan murgil daitezen.

[2] Hona hemen zenbait adibide: Hoover-Dempsey, Bassler eta Burow (1995), Hoover-Dempsey et al. (2001), Siraj-Blatchford et al. (2002)



Proiektu honetako materialak Nafarroako Gobernuko Argitalpen Zerbitzuak argitaratu ditu:

- https://publicaciones.navarra.es/TiendaPublicaciones/consultaPublicacion.faces?id=3507&nv=bp

Interesa duten erakundeek ale bat eskuratu nahi izanez gero, idatzi helbide honetara:

- donapea.secretaria@educacion.navarra.es

Proiektuaren web orria:

- www.parentsmatter.eu

SINDIKATUAK

"LHREN NAZIOARTEKOTZEA" LHKO IKASLEEN "EMIGRAZIOARI", EZ!

José Miguel Gastón
STEE-EILAS

Lanbide Heziketako irakasle gehienek esaten dute interesa dutela kultura arteko gaitasunetan, nazioarteko testuinguruetan arrakastaz murgiltzeko gero eta ezinbestekoagoa den faktorea, alegia. Kultura-artekotasunari esker ikasleek lan interesgarri bat errazago aurkitzeko aukera izanen dute eta, orobat, beren enpresak merkatu globalean duen posizioa indartuko da. Europako integrazio-testuinguru batean, badirudi laneko nazioarteko praktikak tresna egokiak izan daitezkeela ikasleak beste kultura batzuetako lan egoeretan gaitzeko.

Hori hala izanik ere, "mugikortasunaz" edo "nazioartekotzeaz" hitz egiten dugunean, kultura arteko gaitasun horiek aldatzen dira – askotan errealitate latz bilakatzen dira–, ikasleak eskulan merke moduan erabil baitaitezke. Gainera, ikasleen curriculumerako esperientzia garrantzitsua izan badaiteke ere, beste erkidego batzuetako gazteek berek emaniko datuen arabera, praktika "horien" ondoren, unibertsitateko ikasle izaten segitzen zuten eta haien curriculumak ez zuen hasieran uste zen bezainbesteko baliorik. Era berean, goi mailako pertsonek "ihes egiteko" arriskua ere azpimarratzen zuten.

"Globalizazioa", bere modu guztietan: hezkuntzan, lanean... Aukerak dira, ezbairik gabe, baina norendako dira aukera horiek?, zer alde dago "afera honen" eta "emigrazioaren" artean? Prestakuntza eta lan prozesuak egiteko baldintzak prekarioak dira, askotan. Esate baterako, esaten da aukerak Alemanian daudela, non eta lan partziala (eta askotan aldi baterakoa) eguneroko kontua den. Horregatik, kezkatzen gaituzten eta erantzun beharko genituzkeen zalantza ugari dugu. Zein baldintzatan eginen dituzte "ustezko" praktika horiek? Zein da "praktika" horien helburua? Curriculuma, laneko esperientzia, ezagutzak handitzea, heziketa zikloan ikasitako lanbidearen gainean nazioartean dagoen errealitatea gehiago ezagutzea, atzerrian lanpostu bat eskuratzea edo eskulan merkeko burtsak sortzea? Zer kontratu mota izanen dute? Zein lan egoeratan jardungo dute? Zein soldatarekin? Lanean segurtasuna izanen dute?

Hori aski izan ez balitz bezala, gure ustez, gabezia batzuk daude europraktika hauetan, bai irakasle profesionalen prestakuntzan, bai atzerriko lan egonaldien kalitate mailaren artean. Alde horien arrazoiak, hauexek dira: ikasleen hasierako prestakuntzan praktika integratzea, ikaslea igortzen duen ikastetxearen eta ikaslea hartzen duen enpresaren artean komunikaziorik ez izatea, ikasleari laguntzarik ez ematea eta praktikatzailearen gaitasun eta konpententzien gaineko informazioarik ez izatea, hots, ez jakitea zein den haren laneko ahalmena. Hori dela- eta, kalitaterako bermea izanen litzateke ikasleek nazioartean praktikarekin erdietsitako kualifikazio gehigarriak kalibratzeko aukera izan eta haiek ziurtatzea.

Izan badira azpimarratu beharreko alderdi gehiago, hala nola, "prestakuntzarik onena" duten ikasleak direla halakoetan parte har dezaketenak, sustatzen dituen ikastetxearen "irudi" ona dela-eta. Erantzuna behar duten zalantza gehiago. Zein dira hautagaiak aukeratzeko irizpideak? Zer diru-laguntza edo laguntza hartzen dute? Sakelatik ordaindu behar dituzte? Horrenbestez, non dago hainbestetan aipatu baina gutxitan gauzatutako aukera berdintasuna?

Gehitutako beste arazo bat da estatuen arteko hezkuntza sistemak ez direla parekoak, eredu kontzeptual bat baino gehiago daudelako. Adibidez, Alemaniari berriro erreparatzen badiogu ikusiko dugu herrialde horretan gailentzen den sistema duala dela eta soil-soilik eskolakoak diren bideak ere askotan dualtasunarekin itxuratzen direla eta hemen, aitzitik, prestakuntza eskolan emandakoa dela.

Nolabaiteko ahultasunaren beste sintoma bat da, halaber, maiz eragileen portaerak ordezkatzen duela legea. Benetan prestatzeko balio duten praktikak elkarreraginerako prozesu baten ondorio izaten dira, ikastetxeen, ikasleen eta enpresen artean ongi zuzendutakoak, alegia.

"Harrera enpresei" dagokienez, zer araudi eskatzen zaie?, zer jarraipen-mota egiten da? ERASMUS batzuen esperientzia patetikoa da; ez ditugu errefusatu

behar; bai, ordea, fiskalizatu. Interesgarria izanen litzateke enpresa horiek berrikuntzan, ekoizpen-motan... "aitzindariak" izatea eta harremana erakundeen artekoa izatea (berme-emailea Administrazioa izanen litzateke, jarraipena behar bezala eginen lukeelako). Alabaina, harreman hori LHko ikastetxeek beren kontura, "irudia saltzeko", egin behar badute "ia" edozer onartzeko tentazioa izan dezakete.

Gainera, LHko ikasleak hartzen dituzten enpresa horiek prestakuntzarako aukerarik edo prestakuntza emateko borondaterik beti ez dutenez, prestakuntza honen lidergoa ikasleek eta ikastetxeek beren gain hartzen dute. Legeak agindu ez eta enpresek berez ematen ez dutena, ikasleek eta ikastetxeek berek eska dezakete, merkatuaren koiunturaren laguntzarekin. Gaitasunak eskuratzeari dagokionez eraginkortasuna handitzeko, beharrezkoa litzateke Administrazioaren, ikastetxeen eta ikasleen arteko baterako lana (Administrazioak zaindu beharko luke legea zuzen ezartzen dela eta enpresei gehiago eskatu beharko lieke). Ariketa bikoitz hau ona izaten ahal da ikasleendako zein enpresendako.

Prestakuntza moduluen atzerriko dinamikak eskatzen du beste herrialde batzuetako ikastetxe elkartuekin koordinazio berezia egitea eta aurreko lan ona egitea curriculumean, bidaian, gaitasun linguistikoan, antolaketan eta gainbegiraketan, kontrolean eta ebaluazioan. EURESek parte hartzen du? Erakunde horrek parte hartuko balu "praktika" horiek zorrotz eginen lirateke.

Bukatzeko, ez dezagun ahaztu "praktika" horiek ez direla guk ezagutzen dugun Lantokiko prestakuntza bezalakoak. Beraz, argi izan behar dugu zein den helburua (laneko esperientzia izatea, "kultura arteko" gaitasunak lortzea, lan prekarioa, curriculuma...) eta, orobat, asko azpimarratu beharko genuke erakundeen kontrola praktika horiek eskulan merke bihur ez daitezen (lanaren egoera prekarioa da, segurtasun arloko gabezia larriak daude eta ez dago ziurtatua aukera berdintasuna: hautaketa irizpideak, bekak, laguntzak, egonaldiaren kostua...).

CONCAPA

FAMILIEN IKUSPEGIA LANBIDE HEZIKETAREN NAZIOARTEKOTZEAREN AURREAN

Pedro Baile Torrea

Nafarroako CONCAPAko burua

Azken urteetan, Nafarroako Gobernua lanean ari da Lanbide Heziketak berrikuntza eta nazioartekotze handiagoa izan ditzan. Helburua da gure gazteen ekintzailetza jarrerak eta trebetasunak sustatzea eta, horrekin batera, gazteen langabeziak dituen tasa altuak eta krisiaren gizarte ondorioak arintzea.

Kanpo merkatuari ezagutzekin eta estrategia argi batekin aurre egitea gero eta erabakigarriagoa da. Hartara, inoiz baino gehiago, prestakuntza eta nazioartekotzea inbertsio ona dira.

Eta berri hauen aurrean, zerk kezkatzen gaitu, gurasoak garen aldetik? Nola lagundu diezaiekegu gure seme-alabei garaiotara egokitzen, gure mugetatik kanpo ikastera eta/edo lan egitera joatea ez dadin arazo bat izan, aukera handi bat baizik?

Guk guztiok izan genuen hizkuntzak ikasteko aukera gure ikasle garaian, baina horren premia inoiz ez da orain bezain larria eta beharrezkoa izan. Lanbide Heziketako prestakuntza-curriculumak aztertzen baditugu, egiazta dezakegu, atseginez, ildo horretatik lan egiten ari direla eta ia gradu guztietako irakasgaien artean hizkuntza bat edo bi daudela.

Goi mailako graduetako enpresa arloko irakaslea naiz duela 20 urte baino gehiago eta baiezta dezaket gaur egungo gizartean hizkuntza bat ikastea erabat funtsezkoa dela. Ama hizkuntzaz gain beste hizkuntza batzuk ere menderatzea oso baliagarria da lan baterako hautapen prozesuan parte hartzeko orduan. Gainera, beharrezkoa da bidaiatzeko, beste herrialde batzuekin merkataritza harremanak ezartzeko eta, orobat, kontuan hartu beharreko alderdi bat da edozein langileren prestakuntza prozesuan.

Gaur egun, denek argi dugu hizkuntzak langileen garapen pertsonal eta laboralerako ezinbestekoak direla. Espainiako gizartea hortaz jabetzen da, izan ere, espainiarren %94k uste dute hizkuntzak jakitea mundu globalizatuaren behar bat dela (2008an FUNCAS-Aurrezki Kutxen Fundazioak egindako ikerketa).

Urrats bat harago joaten bagara eta hizkuntzek enplegagarritasunean duten eraginari erreparatzen badiogu, hizkuntzak jakiteak %44 handitzen du lan bat aurkitzeko aukera. Gainera, erdi eta goi mailako lanbide profileko postuak betetzeko argitaratutako eskaintzen %80an ingelesa jakitea eskatzen da.

Zentzu honetan, ingelesa lingua franca da. Horren adierazgarri da gehien ikasten den atzerriko hizkuntza dela. Europako Batzordearen datuen arabera, Europako ikasleen %90ek ingelesa ikasten dute derrigorrezko hezkuntzaren uneren batean. Hizkuntza hori ezinbesteko bihurtu da, ez bakarrik munduan gehien mintzatzen den hizkuntza delako, baizik eta, orobat, garrantzi handia duelako lan merkatuan, negozioen munduan, teknologian eta zientzian. Nahiz eta espainiarren %70ek ingelesa garrantzitsua edo oso garrantzitsua dela aitortzen duten, bakarrik %4k ikasten dute, eta hori oso deigarria da.

Horregatik, guk, gurasoak garen aldetik eta datu horiek ikusita, erne ibili behar dugu, eta gure seme-alabek aukeratzen duten graduaren prestakuntza-curriculumean hizkuntza sartuta egoteak duen garrantziaz jabetu behar dugu. Lan esparruari begiratzen badiogu, adituek diote ingeleseko maila ona izatea enpresen garapen eta hazkunderako gakoa dela. Arestian aipatu dudanez, agerikoa da hizkuntzak jakitea balio erantsiko gaitasun bihurtu dela curriculumean, eta lan testuinguru batzuetan ezinbesteko baldintza dela lanpostu bat betetzeko, batez ere lanpostu horrek erantzukizun maila altua badu.

Hori horrela, Espainiako zuzendari eta exekutiboen %36k beren ama hizkuntzaz bestelako hizkuntza bat dakite. %34, gaztelaniaz gain, beste bi hizkuntza desberdinetan moldatzeko gai dira, eta %30ek hiru hizkuntza edo gehiago dakizkite.

Hartara, gurasoak garen aldetik ulertzen dugu Lanbide Heziketaren nazioartekotzea eta graduetan hizkuntza bat edo gehiago ikastea funtsezkoak direla. Horrelako erabaki on batek aipamena merezi du.

Esan dezakegu ez dagoela ingelesa ikasten ez duen haur eta/edo gazterik, baina, nola lor dezakegu ikasketa prozesu hori eraginkorra izatea eta, atzerrira joanez gero, ikasleak nahi duena erdiestea eta ongi moldatzea? Oso garrantzitsua da hizkuntza praktikatzeko aukera guztiak aprobetxatzea: zinema edo telebista jatorrizko bertsioan ikustea, Interneten nabigatzea, sare sozialetan izena eman eta txateatzea, ikaslearen hirian beste hizkuntza batzuetan egiten diren jardueretan izena ematea, liburuak eta aldizkariak irakurtzea eta atzerritarrekin elkar aberasteko aukera ematen duten harremanak izatea. Jarrera kontu bat da: positiboa eta proaktiboa izan behar da, eta esperientziaz gozatu. Aukera guztiak eta, ildo horretan, Lanbide Heziketako programetarako eskaintzen diren bekak aprobetxatzera animatzeak bide horri jarraitzen dio.

Arrazoi asko daude norbere herrialdetik kanpo ikasteko. Batzuek hizkuntza bat ikasi eta beren buruaren jabe egin nahi dute; beste batzuek, aldiz, nahiago dute bestelako kultura batez gozatu eta nazioartean ospea duen ikastetxe batean titulu bat eskuratzea.

Baina atzerrian ikasteko arrazoiak gorabehera, nazioarte mailan egiten den goi mailako prestakuntza esperientzia orok garapen pertsonal eta laboralerako itxaropenak biderkatzen ditu; izan ere, mundu mailako proiekzioa duten enpresek asko baloratzen dituzten trebetasunak garatzeko aukera ematen du, hala nola, arazoak ebazteko eta erabakiak hartzeko gaitasuna, komunikazioetarako erraztasuna eta hizkuntzen ezagutza.

Laburbilduz, atzerrian ikasteak ekartzen dizkigun onurak hiru zatitan banatu daitezke: laboralak, akademikoak eta kulturalak.

PROFESIONALAK

Aipatu dudan bezala, eta nire esperientziaren arabera, gaur egun lan merkatuak diziplinarteko prestakuntza eta prestakuntza jeneralista duten lanbide profilak eskatzen ditu. Profil honetako enpresek, ezagutza sendo eta zabalez gain, enpresa munduaren nazioarteko orientazioarekin bat egiten duen prestakuntza jaso duten langileak nahi dituzte. Nazioarteko programek atzerriko herrialde

baten lanbide munduarekin lehen harremana ezartzeko aukera ematen dute, hala, lanbidea gauzatu nahi den sektorearen ikuspegia zabalduz.

AKADEMIKOAK

Esparru honetan lortzen den onura da atzerrira joaten den ikasleak ez duela bakarrik hautatutako sektorearen barnean ikasiko. Horrez gain, bere karrera edo graduondoarekin loturiko mundu mailako industriara hein handiagoan hurbildu ahal izanen da, eta horrek neurri batean espezializazioa, esperientzia eta praktika gehituko dizkio. Gainera, ikasketak egiteko hautatzen duen herrialdean bereaz bestelako hizkuntza bat mintzatzen bada, profesional elebidun bihurtuko da.

KULTURALAK

Egunez egun atzerriko herrialde batean bizitzea bere garapen pertsonal eta profesionalean eragina izanen duen esperientzia aberasgarri bat da. Herrialde anfitrioiko kultura, ohiturak eta, askotan, baita hizkuntza ere, ikasteko aukera ematen du. Bestelako bizimodu, ordutegi, iritzi eta pentsamenduetara ohitzeak nortasun irekia eta izaera tolerantea eskatzen ditu, eta jarrera horiek ikasten dira beste herrialde batzuetako pertsonekin bizitzen eta estudiatzen.

Hartara, Lanbide Heziketan gertatzen ari den nazioartekotzea oso albiste ona da eta gurasoek urrezko aukera ikusten dugu hor gure seme-alabak dagoeneko mugak ez dituen mundu global batean lan egiteko presta daitezen.

"HOYO-HOYO"-TIK "KANIMAMBO"-RA

Mozambike hegoaldean nagusi den "ronga" hizkuntzan "ongi etorri-tik esker mila-ra"

Jorge Lanchas Rivero

Iruñeko Salestarren Ikastetxea,
ANEG eta FEREko ordezkaria.

Mozambike izugarri herrialde handia da, azaleraz Espainiaren bikoitza, luzeraz (2800-3000 km) ia hirukoitza. 22-23 milioi biztanle ditu, herrialdean barna modu desorekatuan banatuta. Giza garapenaren indizeei dagokienez (osasuna, hezkuntza eta per capita sarrerak), 2012an PNUDen estatistiketan aintzat hartutako 186 herrialdeetatik 185.a zen.Herrialde horri buruz luzaz entzun genuen komunikabideetan, ia 25 urtez, Portugaldik independizatu zelako eta gerra zibilean sartu zelako hasieran eta joan den mendeko 80ko hamarkadaren bukaeran eta 90ekoan bake negoziazioen eta jarduera armatuak berrastearen artean kolokan ibili zelako.

Duela 21 urte, behin 1992ko bakea sinatua zela, errealitate berri bati aurre egin behar izan zion, 60.000 gazte baino gehiago baitzituen desmobilizatuta, gehienak eskolan gutxieneko batzuk ikasi gabe, azpiegituretan eta idealetan suntsituriko herrialde batean biziraupenaren bila, bakearen ondotik giza duintasunaren gutxieneko baldintzak betetzen ez zituztela. NBEren soldaduek okupatua eta zaindua, nahitaezkoa zen oinarri-oinarritik abiatzea, ahal zena egitea prekarietatetik ateratzeko, oinarrizkoenak diren beharrei erantzutea eta 1993an politikariek aipatzen zituzten 1975eko ongizate mailak eskuratzen saiatzen zen herrialde bat berreraikitzea.

LANBIDE HEZIKETA, ETORKIZUNEKO GILTZA

Herrialdean urte horietan guztietan zehar izan ziren salestarrek, gazteak zerbitzatzeko zuten sentsibilitateak mugiturik, galdera bat paratu zuten mahai gainean: "zer egin?", "badugu gaitasunik etorkizuna ereiteko gazten hauengan?". Haietakoren batek ulertu zuen Espainiako LHko salestar sareak esku bat bota zezakeela. Eta laguntza aldarria Iruñeko salestarrenera iritsi zen.

Erantzuteko orduan adostasuna ezin zen bestelakoa izan: herrialdearen eta gazteen norabidea alda zezakeen ekarpen handia hezkuntza zen. Ez zuten deus asmatu, bestalde. Gakoa beste bat zen, eta hau bai zela berezia, areagoa Lanbide Heziketa 1975tik ezabatua zen eskualde lusofono batean: arrunt oinarrizko Lanbide Heziketako ikastaroak martxan jartzea, ikastaro laburrak, gazteak prestakuntzaren mundura ekartzeko. Hori bai, hasieratik, bertako gobernu berriaren adostasunarekin. Hitzez hitz, hala esaten zuten: "Egin ezazue ahal duzuena dena egiteko duen herrialde honen alde".

Dirurik gabe, baliabiderik gabe, energiarik gabe, instalazio erabat prekarioekin, lantegiko mahaiak Alemaniatik laguntza gisa igorritako makinen kutxetako oholekin eraikiz eta, kutxa horietako iltzeak eskuz arteztuz, Maputoko Lhanguene auzoan lehenbiziko soldadura, zurgintza eta elektrizitate ikastaroak hasi ziren. Sei hilabete, hainbat ordu, jakinik ikastaroetarako oinarrizko materiala izateko egundoko ahalegina egin behar izanen zela. Alemaniatik hasierarako igorritakoek balio izan zuten proiektua martxan jartzeko eta, bereziki, Mozambikeko salestarren LHko sarea sortzeko ilusioa bultzatzeko.

Iruñeko salestarretako zuzendariak 1993an Mozambikera joan ziren egoera aztertzeko eta hiru edo lau urterako gutxienekoen programa bat ezartzeko. Hortxe hasten zen abentura. Abentura hori ez zatekeen posible izanen irakasleen eta Iruñeko salestarretako eta Espainiako beste zenbait ikastetxe salestarretako hainbat ikasle boluntariorik gabe. Horiei gehitu zitzaizkien, lankidetzan, ikastetxearekin lotura duten Nafarroako enpresak, salestarren ikasle ohien Rinaldi Fundazioa, Nafarroako Gobernua garapenerako proiekturen batekin... eta abar.

ESTRATEGIAK FINKATZEN

Eta Mozambiken? Mozambikeko misiolari salestarrek, teknikoki indartuak, makineria ekarpenarekin eta irakasleen etengabeko prestakuntzarako konpromisoarekin, jakin izan dute urteetan zehar emaitzak biderkatzen eta, bereziki, Mozambikeko Gobernuarekin eta zenbait herrialde donatzaileekin harremana ezartzen, mantentzen eta sustatzen. Horri lagundu dio Lanbide Heziketa erregulatzeko estatu erakundeen sorrera eta funtzionamendua sustatzeak, kasu, LHrako programa integratua (PIREP),

Lanbide Gaitasunen garapenerako funtsa (FUNDEC), Kualifikazioen institutua (QNQP), Lanbide Heziketaren Erreformarako Batzorde Exekutiboa (COREP) eta herrialdeko LH "formalerako" bi plan estrategiko sortzeak, irakaskuntza maila desberdinak ezartzeak... Ondorioz, salestarrak Mozambikeko Gobernuarendako "partner" nahitaezkotzat joak dira LH ezarri eta erreformatzeko orduan.

Hau areago zehazten da LHko 5 ikastetxeko salestar sarean. Prestakuntza eskaintza zabala egiten dute, hainbat lanbide familiatan –mekanika, elektrizitatea, zurgintza, eraikuntza, ebaketa eta jantzigintza, automobilaren mantentze-lanak, etab.–. Eskaintzari eusteko eta eguneratzeko boluntario teknikoak daude, 21 urtetan zehar aholkularitza, instalazio, programa eta curriculum didaktikoko zerbitzuak ematen ari dira eta, batez ere, hezitzaileak prestatzen.

ESKOLAK, LANTEGIAK, PROGRAMAK... BAI, BAINA, DIRUA?

Iruñeko salestarren artean ere urtez urte mantenduriko urrutiko intuizioa, areago joan da. Laneko munduan integratzeko asmoa duten gazteendako LH eguneratu batek kalitatezko salto handi bat eskatzen du, aintzat hartzen badugu gako berri eta sortzaile bat: irakasleak. Horrela sortu zen salestarren aldetik proposamena eta Mozambikeko Gobernuaren aldetik eskaera LHko irakasleen prestakuntzara bideraturiko "Don Bosco" Goi

Mailako Unibertsitate Institutua martxan jartzeko. Institutuan gaur egun 300 ikasle ari dira prestakuntza presentzialean eta 400etik gora on line bidezkoan.

Laburtuz, 1992an Iruñeko salestarrek, eta haiekin batera Mozambikeko boluntariotzaren koordinatzaile Angel Miranda jaunak, irakasle talde batek eta ikasle nagusi zenbaitek, "Jovenes y Desarrollo" salestar GKEk, Espainiako LHko salestarren sareko boluntarioek eta Mozambikeko LHko salestar sareko salestar eta irakasleek, Mozambikeko administrazioko beste entitate batzuekin, herrialde donatzaileen laguntzarekin eta teknologia eta baliabideak eskaini dituzten enpresekin batera, hezkuntza sisteman eta formazioaren eta industriaren garapenean izugarrizko kalitate eraldatzailea den lana egin ahal izan dute, non eta etorkizunari itxaropenez begiratzen dion herri batean, etengabeko ahaleginean eta batez ere gaztea den biztanleriaren giza kalitatean oinarritua.

ETA HISTORIAK BERE BIDEA EGITEN DARRAI.

2013an urrats garrantzitsua eman zen, Mozambikeko salestar proiektuan enpresaren munduaren presentzia aktibo, profesional, berritzaile eta antolamenduzkoa integratu baitzen, "M. Torres"-en bidez, enpresa horrekin egindako akordioari esker I+B+G teknologiko eta industrialean duen esperientzia lotu baitzen "Jovenes y Desarrollo" GKEaren xede eta lanarekin. Horrela, giza eta hezkuntza promozioari eta garapen industrialari bide berriak ireki zitzaizkion herrialde hartan, teknikoki, humanoki eta profesionalki kualifikatuta dauden boluntarioekin lan egin baitezake.

2014-15 ikasturtean, Iruñeko salestarren ikastetxea "LHko institutu politekniko" gisa aitortua izateak aukerak ematen ditu Mozambikeko Lanbide Heziketa ezartzeko eta garatzeko bidean lankidetza bide berriak ezartzeko, gizarte erantzukizuneko konpromisoa Mozambikeko eta garapen bidean dauden beste herrialde batzuetako boluntariotza teknikoko ekintzan proiekta baitezake, LH eguneratu baten kalitateari eragiten dioten hainbat alderdirekin loturiko bitariko akordioak garatzearen bidez (hornidura, aholkularitza teknikoa, irakasleen prestakuntza teknikoa eta pedagogikoa, gazteak lanean sartzeko prozesuetan laguntzea, curriculumak garatzea, baliabide didaktikoak prestatzea, iraupen maila desberdineko ekintza presentzialak eta online bidezkoak barne) eta, bereziki, Nafarroako pertsona, enpresa eta erakundeen prestasun eskuzabalari esker.

Lankidetzako 21 urte hauek erakutsi dute Mozambikeko administrazioa eta gazteak mailaz maila autonomia eta protagonismoa hartzen ari direla, Mozambikeko salestarren Lanbide Heziketako sarean ernaturiko hazia herrialdeko Lanbide Heziketako sare guztira hedatzeko erantzukizuna beren gain hartu dutela. Aurreikuspena da Lanbide Heziketa

bi mailatan –oinarrizkoa eta erdi maila- antolatzea, Kualifikazioen Sistema Nazionaleko lanbide familia guztietan. Lankidetzaren atea beti dago irekia.

IRUÑEKO SALESTARREN LANBIDE HEZIKETAK BIDAIATZEN DARRAI, ORAINGO HONETAN HEGO SUDANERA

Kontu hau guztia hasi zen email bat jaso genuenean. Bertan, teknikariak bilatzen zituzten Afrikako herrialde gazte bateko Lanbide Heziketako ikastetxe berri bat laguntzeko, urte batez gure presentzia bertan eman ahal izateko. Gure eskabidea Jovenes y Desarrollo erakundera igorri ondoren, oniritzia eman ziguten eta proiektua Iruñeko salestarren gure ikastetxean aurkeztu genuen. Zuzendaritzaren eta hezkuntza erkidegoaren babesarekin, salestarren ikastetxeko irakasle Iñigo eta Javierrek eszedentzia eskatu genuen eta Hego Sudanera abiatu ginen 2013ko udan.

Hego Sudaneko hiriburu Juba-ra iristean, ia inolako azpiegiturarik ez duen herrialde bat aurkitu genuen. Nabarmena zen petrolio putzuetan duen aberastasuna (=zorigaitza) kontrolatzeko Sudanen aurka 35 urtetan zehar izan den gerrak utzitako ondorioa. Herrialde independente gisa nortasun berria estreinatzen hasi berria da, bakea berriegia eta arrunt hauskorra da, finkatze prozesuan dago.

Jatorria Indian duten salestarrek eta jendeak beso zabalik hartu gaituzte, eta hasieratik dugu etxean bezala egon izanaren sentsazioa. Hemen jendea arrunt harbera da eta gogo bizia du bizitzako gauza xumeak konpartitzeko. Herrialde honetan gazte jende asko dago, bakean bizitzea desiratzen dutenak. Baina, zoritxarrez, “warlord” (gudako jauntxoak) batzuen esku daude: orain “politikari” bihurtu dira, baina botere eta diru gose aseezina dute eta, herrialdeko jende xumearen ongizate orokorrari begiratu beharrean, beren buruari baino ez diote begiratzen.

Petrolio ekoizpen txundigarria duen herrialde honek, 60 kilometroko errepide asfaltatua baino ez du... eta han ia inork ez dio bere buruari galdetzen zer gertatzen den lurretik ateratzen den diru horrekin, herritar guztiena den diru horrekin.

LANBIDE BAT IRAKASTEA BIZITZA IRABAZTEKO

Lanbide Heziketaren aldeko gure aukera erabat salestarra da. Egiten duguna da arrantzatzen irakastea, herritar zintzoak eta kristau onak heziz, salestarren fundatzaile San Joan Boscoren helburu handia zena. Horrek munduko zeinahi herrialdetarako balio du. Jendeari lanbide bat irakastea, bizitza duintasunez irabaz dezaten. Horrek, tresna gisa, ez du mugarik, ekarpen integrala delako pertsonarendako, familiarendako ingurukoendako, gizartearendako. Horren gaztea den herrialdean, non apenas ez dagoen ikastetxerik ikasteko irrikan dagoen gazte saldoari erantzuteko. Horrela, nahi-



taezkoa da hau bezalako proiektu bat, eta hau bezalako proiektu asko egitea, pertsonaren, familiaren eta gizartearen duintasunean aurrera egiteko.

Salestarren GKE den "Jovenes y Desarrollo"-k kudeaturiko AECIren lau urteko proiektu baten eskutik, gure ekarpena Instalazio Elektrikoen espezialitateko boluntariotza teknikoa da, irakaskuntzan dugun prestakuntza eta esperientzian oinarriturik.

Gure lan ildoek hainbat bide izan dituzte:

- LHko ikastetxe salestarrendako curriculum berriak definitzea eta sortzea, herrialdeko errealitatearen ikerketa batean eta bertako industria txikian oinarriturik, eta bertako Hezkuntza Ministerioko lantaldeek markatzen diguten ildoan.
- Bertako irakasleak laguntzea eta prestatzea.
- Moduluen eta irakasgaien programazioak prestatzen irakastea.
- Hezkuntza materialak, testuliburuak, etab. sortzea.
- Instalazioak ikastetxeko hezkuntza premietara egokitzea.
- Ikastetxera hurbiltzen diren gazte guztien aisialdia animatzea.

Hau guztia Salestarren komunitatearen eskutik. Izan ere, ikastetxe honetan ilusioa dute hezkuntza gune bat sortzeko, gune irekia, askea, inguruko gazte guztiendako atsegina izanen dena.

Iruñeko salestarren giroa txikitatik ezagutu dugun bi irakasle ari gara parte hartzen: ikasle izan gara, aisialdian ibili gara, urte askoan LHko irakasle izan gara. Erabat sinetsirik gaude gazteak hurbiltasunetik eta maitasunetik hezi ditzakegula, gure prestasunetik, eta Lanbide Heziketaren garrantziaz jabeturik. Indarra ematen digu fedeak eta jakiteak hemen egonik hara goazela besteei laguntzera, nahiz eta ziurrenik emanen duguna baino gehiago jasoko dugun.

HEZKUNTZA KOMUNITATE INPLIKATUA

Ez goaz bakarrik. Iruñeko salestarren hezkuntza erkidegoaren laguntza gurekin daramagu, Hego Sudaneko gure lana emankorra izan dadin. Eta bide batez, Iruñeko salestarren ikastetxeko eta beste ikastetxe batzuetako gazteei dei egin nahi diegu laguntza eman dezaten horrenbesteko beharra duten herrialde hauetako proiektuetan. Absurdua da hemen Nafarroan dugun Lanbide Heziketaren eta herrialde berrian sustatzeko asmoa dagoenaren arteko erkaketa egitea, izan ere, arrunt desberdina da hango kultura gurearekin erkatuta, baldintza ugari daude ematen den urrats bakoitza zailtzen dutenak. Eraikitzea, arrunt konplikatua da. Hezkuntzari buruzko gure ideia herri hauetara eramatea ere akatsa da, gure balio erantsia baita tresnak eta pistak ematea haiek eraiki dezaten, beren errealitatera eta beharretara egokitu dezaten eta bizi diren gizarteari erantzunen dion zerbait sortu ahal izan dezaten.

Joan den abendu bukaeran bizi izan genituen gertaerek bide eman diote herrialdean indarkeria eta gatazka egoera berri bati eta, ondorioz, brastakoan esnatu behar izan dira BAKE ametsetatik. Gatazkak borroka etnikoa ekarri du, berriz ere borrokan ari dira aberastasun iturri den petrolioak sortzen duen boterea kontrolatzeko, berriz ere atera dituzte armak jendea masakratzeko, herrialdean barna milaka hildako eta milaka desplazatu daude.

Handik atera garenean utzi dugun egoera lazgarria da... eta hiru hilabeteren ondoren, ez da ikusten epe laburrera konponbiderik izan daitekeenik.

Jainkoari esker, herrialde horretako jendea arrunt indartsu eta konfiantzaz dago, eta berriz ere, beren bizitza normaltasunera bideratu nahian ari dira, nahiz eta karriketan armak diren. Gure ikastetxeek ikasturte berrirako ateak ireki dituzte eta gelak haurrez bete dira. Zailtasunak handiak badira ere, etorkizuna bakean eta harmonian bizitzeko gogoa handia da. Hala izan dadin otoitz eginen dugu.

Iñigo Ilundain eta Javier Serrano gara,

Iruñeko salestarren ikastetxeko irakasleak. Dei egiten diegu Nafarroako LHko irakasle eta ikasleei eta gazteei zalantzarik gabe beren doako ekarpena egin diezaieten herrialde hauetako gazteei, izan ere, ongien berreskuraturiko inbertsioetakoa baita.

Iruñeko salestarrek hainbat herrialdetako laguntza eskaerak jaso dituzte eta zenbait herrialdetan gauzatu dira, kasu, Mozambiken, Beninen, Togon, Hego Sudanen. Beste kasu batzuetan, Bolivian, El Salvadorren, Haitin, Dominikar Errepublikan, Ekuadorren... programak, irakasleendako prestakuntza... eskatzen ari dira.

Gure ustez Nafarroako Lanbide Heziketaren eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren lankidetza, irakasleen, salestar ikasle ohien, enpresarien inplikazioa funtsezkoa dela askatasunean eta demokrazian bidea egiten ari diren herrialde hauetan guztietan Lantokietako prestakuntza eta/edo LHko praktikak egin ahal izan ditzaten ikasleek. Gizarte justiziazko gai bat da, ezin daitekeena bertan behera utzi. Gure konpromisoa errealitate horrekin indartsua eta iraupen handikoa izan behar da, gai izan daitezen beren bitartekoekin bidea egiteko.

NAZIOARTEKO LANBIDE HEZIKETA ETA ENPLEGUA

José Manuel Dafauce Pozo

Iruñeko María Ana Sanz Ikastetxe
Integratuko zuzendaria

Prestakuntza-emaileak eta enplegu-emaileak ados daude esaten dutenean lortu nahi den profil profesionalak talentu teknikoaren maila bereko edo goragoko funtsezko kualitateak dituela, eta kualitate horiek prestakuntza programetan egon beharko luketela.

Kualitate horiek gaitasun jakin batzuk dira, erantzukizun-maila profesional guztietan egon behar dutenak, edozein erakunderen misioa eta balioen garapena hobeak izan daitezen. Gaitasun pertsonal horien artean garrantzi berezia du hizkuntza gaitasunak.

Era berean, enpresak sustatu eta laguntzeko erakundeek, analista ekonomikoek eta arduradun politikoek bete-betean bat egiten dute esaten dutenean nazioartekotzearen beharra dagoela, nazioartekotzea hazkuntza ekonomikoaren motor modura hartuta. Merkatuak zabaltzea eta dibertsifikatzea izan daiteke beharbada Espainiako ekonomiak hazteko duen itxaropenerako irteera bakarra eta hori lortzeko beharrezkoa da enpresen lehiakortasuna handitzea, hots, enpresaburuen eta langileen gaitasunen kalitate-maila handitzea.

Hartara, gaitasun horien artean ezinbestekoa da hizkuntza gaitasuna, bereziki ingelesarena, ingelesa baita nazioarteko merkataritzan ohiko hizkuntza. Ingelesa maila aurreratuan ikasteko beharrezkoa da munduko gainerako herrialdeekin komunikatzeko ingelesa erabiltzen duten beste herrialde batzuetako enpresa-inguruetan egonaldiak egitea, herrialde horietan mintzatzen den hizkuntza ingelesa izan edo ez.

Hala, begien aurrean dugun panoraman beharrezkoa egiten da gure ekoizpen-sektorean nazioartekotzea bultzatzea eta gaitasunen maila hobetzea, modu orokorrean eta gure profesionalen esportazioan oinarrituta.

Helburu horrekin onartu du berriki Ministroen Kontseiluak Espainiako ekonomia nazioartekotzeko plan estrategikoa. Sei jarduketa-ardatzetako bat "Nazioartekotzearen kultura estimulatzea eta giza kapitala" izenekoa da. Beraz, ezinbestekoa da hezkuntza sistema nazioartekotzea giza kapitalaren gaur egungo eta etorkizuneko dotazioa handitzeko.

Lanbide Heziketako ikastetxeen oinarrizko helburua ikasleek enplegagarritasunik handiena lortzea da eta horrek berekin dakar prestakuntza inguru sozioekonomikoaren beharretara egokitu beharra sustatzea, ezin baikara esparru lokalera soilik mugatu.

Horretarako, Lanbide Heziketaren Zerbitzuaren ildo estrategiko nagusietako bat ikastetxeen nazioartekotzea da. Horretarako erabilitako jarduketak honako hauetan laburbil ditzakegu:

- Ikastetxeetako kideak hizkuntzak ikasteak duen garrantziaz jabearaztea.
- Ikasketa-eskaintza elebiduna eta bigarren hizkuntza bat (bereziki, ingelesa) sustatzea.
- Ikasle, irakasle eta zuzendaritza taldeetako kideen mugikortasuna handitzea.
- Ikastetxeen nazioartekotzea errazten duten nazioarteko sareetako parte-hartzea bultzatzea.

Bestalde, azken urteotan Nafarroako LHko ikastetxe integratuek plan estrategikoetan sartu dituzte Lanbide Heziketaren beharrezko nazioartekotzea sendotzen duten jarduketa-ildoak. Azpimarratzekoak dira:

- Nazioartekotzearen arduradunaren figura ezartzea, eginkizun hauekin: irakasleen hizkuntza-prestakuntza dinamizatu eta koordinatzea; ikasleei aholkua eman eta haien mugikortasuna sustatzea, Europako beste herrialde batzuetako enpresetan

egonaldiak egin ditzaten; eta LHko beste ikastetxe batzuekin nazioarteko proiektuetan parte hartzeko behar dena planifikatu eta antolatzea.

- Lanbide arloko departamentuetatik e-twining plataformaren erabilera sustatzea, atzerriko ikastetxeekin proiektu teknikoak batera lantzeko.
- Europako programen gaineko informazioarentzat berariazko atalak sortzea ikastetxeen web orrietan.
- Enpresa simulatuen nazioarteko azoketan parte hartzea (SEFED programa), hezkuntza helburuak dituzten enpresen Europeen sarearen barnean.
- Zenbait ikastetxe integratutan baterako proiektuak egitea Alemania, Holanda, Polonia, Finlandia, Frantzia eta abarretako ikastetxeekin batera.
- LHko irakasleek eta ikasleek nazioarteko enpresetan egonaldiak egitea.

Horrek guztiak mugikortasunen kopurua handitzen du eta, azken finean, hizkuntza gaitasunak eta komunikaziorako, talde lanerako, antolaketarako eta abarretarako bestelako gaitasun pertsonalak hobetzen ditu, beste herrialde batzuetako LHko ikastetxeekin batera lanak egiteak berekin dakarren elkarrekiko ikaskuntzaren ondorio modura.

Azkenik, garrantzitsua da azpimarratzea Lantokiko prestakuntza egiteko enpresetan egindako egonaldiak probetxuzkoak direla (erdi eta goi mailako LHko ikasleek Erasmus programaren barnean egin ditzakete) eta, orobat, esan behar da prestakuntza eta enpleguaren ardura duten administrazio publikoek prestakuntzarako dituzten aurrekontuetan egonaldi horiek egiteko behar bezainbesteko laguntza eman beharko luketela, etorkizuneko gure profesionalen prestakuntza nazioartekotzeko helburuak erdiesteko biderik eraginkorrena delako.



LANBIDE HEZIKETA ETA EKINTZAILETZA

Belén Goñi

Institución Futuroko zuzendaria

Gustukoa izan edo ez izan, mundu global batean bizi gara, herrialde eta eskualdeen eta haien organizazioen mugak lausotu eta iragazkortu diren batean. Edozein negoziotako bezeroak, hornitzaileak, azpikontratistak, baita langileak ere, jadanik ez dira bere ingururik hurbilenean kokatzen; izan ere, munduko edozein txokotan elkar daitezke. Philips edo Apple moduko enpresek ez dituzte jadanik ikerketa eta garapenerako isilpeko departamentu handiak, ireki dira eta planeta osoko pertsonen ikerketarako talentuaz baliatzen dira. Konpainia askok Indian edo Argentinan dauden programatzaile informatikoekin lan egiten dute eta erabiltzen ditugun produktu konplexu gehienak lau puntu kardinaletatik datozen piezez osatuta daude. Produktu bat egin edo zerbitzu bat eskaintzeko piezarik onenak bilatu eta batzeko trebetasuna eta produktu hori merkaturatzekoa ezinbestekoak gertatzen ari dira.

Halako lan-ingurunean bizi gara eta ingurune hori topatuko dute hurrengo urteeetan lan merkatura joko dutenek. Baina, prestaturik daude horretarako? Egokitu dugu irakasteko modua behar berri horietara?

2011. urtean, Nafarroak "Human Capital Index" izeneko proiektu pilotu batean parte hartu zuen; proiektu horren bitartez eskualde bateko gizakiak neurtzeko modua bilatu nahi izan zen. Proiektu horren ondorio argienetakoaren arabera, enplegu gehienetan prestakuntza teoriko eta praktiko zehatza duten teknikariak eskatzen ziren eta, aitzitik, gure Foru Komunitatean segitzen zen ezagutza teorikoagoak zituzten lizentziadun gehiago prestatzen. Era berean, positibotzat jotzen zen Lanbide Heziketa bultzatzeko eta lanera hurbiltzeko egiten ari zen ahalegin handia.

Institución Futuro-k Nafarroako Enpleguaren Behatokirako berriki (2013an) egindako "Competencias profesionales y empleabilidad para el siglo XXI (Lanbide gaitasunak eta enplegagarritasuna XXI. menderako)" izeneko azterlan batean, Reflex europar proiektuaren metodologiari jarraikiz, jadanik lanean ari diren LHko ikasle ohiei galdetu zitzaien zein ziren gaur egun zuten lanpostuan gaitasunik garrantzitsuenak eta zer neurritan ikasi zituzten gaitasun horiek beren prestakuntzan zehar. Oro har, emaitzak erakusten zuen jasotako prestakuntza ona eta beharrezkoa zela, baina hobetzeko moduko zenbait arlo azpimarratzen ziren, hala nola, denbora modu eraginkorrean erabiltzea, elkar ulertzea, ideia berriak izatea edo hizkuntzak jakitea. Esan behar da gaitasun horiek kritikoak direla gorago azaldutako munduan, zeinetan edozein produktu edo zerbitzuren balio-katean parte hartzen duten eragile askorekiko harreman fisikoa oso mugatua izan daitekeen. Hartara, nafar askok ez dakitena da alor horretan ere ahalegin handia egiten ari dela LHn eta zernahi herrialdetara Erasmus-a egitera joaten diren ikasleak asko direla. Horrek guztiak lagunduko die hizkuntza-maila hobetzen, beste errealitate batzuk ikusten, burua irekitzen eta jarduteko beste modu batzuk ezagutzen.

Azken finean, gure gazteak etorkizun profesionalerako prestatu behar ditugu eta, besteak beste, horrek berekin dakar prestakuntza ematea ekintzaileak izan daitezen. Hau da, kontua ez da soilik enpresak sortzea, proiektuak abian jarri behar dira eta, zailtasun, arazo edo erronka baten aurrean, gai izan behar dugu soluzioak aurkitu eta abian jartzeko. Eta horrek berekin dakar zenbait gaitasun garatzea, besteak beste, honako hauek: autonomia, ziurgabetasuna toleratzea, arriskuak bere gain hartzea, lidergoa, irmotasuna, ahalegina... Beharko dituzte mundu konplexu, ireki eta aldakor honetan. Bai, alafede!

Gaitasun ekintzaileen irakaskuntzak zer esan nahi duen hobeki mugatzeko, ekintzaile izaten ikasteak lau alor handi ukitzen ditu, Gironako Príncipe Fundazioak "Ekintzaile izaten ikastea. Nola hezi talentu ekintzailea" izeneko txostenean adierazitakoaren arabera. Lehena, norberaren autonomia: autoestimua eta konfiantza garatzea, lorpenaren motibazioa eta gainditze-espiritua bultzatzea, ardura hartzea eta norberaren ekintzen ondorioak bere gain hartzea, lana modu eraginkorrean kudeatzea, erabakiak hartzea eta arazoak ebaztea... Beste ezaugarri-multzo bat lidergoari dagokio. Arlo jakin baten gaineko ezagutza teknikoak izatea bezain beharrezkoa da komunikazio eta negoziaziorako trebetasunak artez erabiltzea, lantaldeak



sustatu eta zuzentzea, arriskuak hartzea... Hirugarren gaitasun-multzoak berrikuntzarekin du zerikusia. Gaur egun, nahitaezkoa da aurretiko ezagutzetatik abiaturik ekintza berriei ekitea, ideia eta prozesuetan sormena izatea edo etorkizuneko ikuspegiarekin lan egitea. Azkenik, ekintzaile izaten ikastearekin batera enpresa-trebetasunei lotutako ezaugarriak daude, hala nola, alderdi ekonomikoak kudeatzea, marketin eta komunikaziorako estrategiak erabiltzea edo gizartean modu arduratsuan aritzea, beste zernahiren artean.

Ekintzailetzan gaitasunak eskuratzea ez da soilik ezagutzak eskuratzea. Ekintzailetzaren hezkuntzan modu ekintzailean jarduteko trebetasuna garatu behar denez gero, beharbada jarrerak eta portaerak garrantzitsuagoak dira negozio bat nola zuzendu behar den jakitea baino. Zaila da gaitasun hauek hezkuntza-metodo tradizionalarekin irakastea; metodo horretan ikasleak, gutxiago edo gehiago, rol pasiboa du eta informazio hartzaile hutsa da. Honako honetan pedagogia aktiboak behar dira, ahal den heinean, bizitza errealeko adibide praktikoak erabiliko dituztenak.

Bestalde, adostasun handia dago esatean gai hau zeharka landu beharra dagoela, ez soilik irakasgai batean. Gaitasun ekintzaileak edozein irakasgaitan lan daitezke, ikasleek ikasmailan egin beharreko jardueren bitartez. Lanak, "Googlen ez dauden" galderak, zeharkako galderak, erronkak... Baina, horretaz gainera, beharrezkoa da gizarte aberats eta solidario batean enpresaburuaren eta ekintzailearen figura modu baikorrean agertzea. Hori irakasgai bakoitzean egin daiteke gure historia eta ezagutzan irakasgai guztietan ekintzaile moduan nabarmen daitezkeen ekintzaile asko dagoelako. Esate baterako: Claude Monet, "inpresioa: eguzki atera berria"rekin inpresionismoaren aitzindaria izan zena; zernahi asmatzaile, beren kemenez gizateria aitzinarazi zuen ideia gauzatu zutenak, esaterako, Edison, musikariak, matematikariak, literatoak, militarrak... Beren kemen, lan eta ahaleginarekin lan, negozio edo ahalegin zail bati ekin eta hura hasi zuten zernahi adibide dugu. Ezaugarri hauei garrantzia emateak ez du sendotu baizik egiten ekintzaileek munduak aurrera egitean izan duten garrantzia.

Teoria bera erraza izan daiteke, baina ez ikasgelan praktikara eramatea. Institución Futuro-kook "zer", "zergatik" eta "nola" galderak azpimarratzen ditugu, baina ez gara hezkuntzan adituak eta ezin gara urrunago joan eta ez gara ausartzen urrunago joatera. Hala ere, azpimarratu nahi dugu gaur egun Nafarroan izan badirela abian dauden proiektu batzuk: Équilicuá edo negozioa bultzatzeko berriki irekitako bulegoak, #Ideación programan txertatutakoak, horren adibide argia dira. Baina azken urteotan egiaztatu ahal izan dugu ikastetxeetan badirela beren denbora eta ahalegina erabiltzen dituzten irakasleak, beren ikasleak gaitasun hauetako askotan entrenatzen dituztenak, askotariko jardueren bitartez. Ziurtatu beharko dugu gizarte osoaren aldetik beharrezkoa den euskarria eta laguntza ematen diegula.

Azken finean, mundu global batean murgiltzeko eta zoriontsuak izateko gai izanen diren pertsonak formatu nahi baditugu, horretarako beharrezkoak diren tresnak eman beharko dizkiegu eta tresna horien artean gaitasunak egon beharko dira, hizkuntzez eta ezagutza teknikoaz gainera. Gaitasun horiek, batetik, arazo eta erronkei aurre egiteko beharko dira, eta bestetik, egoera ziurgabeetan eta herrialde eta errealitate ekonomiko eta sozial oso desberdinetan soluzioak abian jartzeko. Badirudi Nafarroa bide onetik doala, baina onuragarria izanen litzateke denen artean bultzada handiagoa ematea.

ERASMUS+: BIZITZAK ALDATZEN, ADIMENAK ZABALTZEN

OAPEE

(Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren
Europako Hezkuntza Programen Erakunde Autonomoa)

Europar Batasunaren hezkuntza, prestakuntza, gazteria eta kirolaren programa 2014-2020rako.

Europar Batzordeak Erasmus+ programa berria (2014-2020) abian jarri du, gaitasunak eta enplegagarritasuna handitzeko eta, orobat, hezkuntza, prestakuntza, gazteria eta kirolaren sistemak laguntzeko. Europa 2020, Hezkuntza eta Prestakuntza 2020 eta Rethinking Education estrategien barnean kokatzen da Erasmus+, eta hezkuntza, prestakuntza, gazteria eta kirolaren gaineko ekimenak hartzen ditu barne. Hezkuntza esparruan maila guztiak hartzen ditu: eskola, Lanbide Heziketa, goi mailako ikasketak eta helduen prestakuntza.

14.700 milioi euroko aurrekontua duen programa honek aukera emanen du 4 milioi pertsonak baino gehiagok beren herrialdetik kanpo ikasi, prestatu, lan egin edo boluntariotza programa batean parte hartzeko laguntzak jasotzeko.

Europako Hezkuntza Programen Erakunde Autonomoa (EHPEA) da hezkuntzaren eta prestakuntzaren esparruko Erasmus+ programa berri hau (2014-2020), eta 2016ra arte hainbat proiektu aktibo dituen 2007-2013 Etengabeko Ikaskuntzarako Programa (EIP) kudeatzen dituen agentzia nazionala.

Agentzia nazionala (EHPEA) den aldetik, Europako programen deialdiak (Erasmus+ eta EIP) hedatzeaz arduratzen da eta, orobat, ekintza horien balizko onuradunei laguntza teknikoa eta aholkularitza emateaz, jarraipen egokia egiteaz aurreikusitako ekintzek behar bezalako emaitzak lor ditzaten eta ekintza horietara bideraturiko europar funtsak modu eraginkor eta gardenean kudeatzeaz.

Hedatze eta jarraipen lanak egiteko, agentzia nazionalak hainbat erakunderen laguntza du: autonomia erkidegoetako hezkuntza kontseilaritzak, unibertsitateak, eskualdeetako enplegu zerbitzu publikoak, merkataritza ganberak, enpresa eta sindikatuen erakundeak eta prestakuntza jarduerak garatzen dituzten bestelako erakundeak.

Erasmus+ programak hezkuntzaren eta prestakuntzaren esparru guztietan Europak eta Estatuak garatzen dituzten politikak lagundu nahi ditu, nazioartekotzeak eskaintzen duen balio erantsiaren bidez, gure herrialdeko milaka erakunde eta pertsonari Europa mailan mugitzeko eta lankidetzan aritzeko aukera gehiago eskaintzen baitizkie.

Programa berri hau 7 urtez (2014-2020) izanen da indarrean eta Etengabeko Ikaskuntzarako Programa (EIP) eta Gazteak Martxan Programa ordezkatzen ditu. Goi mailako nazioarteko hezkuntza programa hauek hartzen ditu barne: Erasmus Mundus, Erasmus Tempus, ALFA, Edulink eta aldebiko beste programa batzuk, baita Jean Monet programa ere.

Erasmus+ programa berriarekin eraginkortasuna handituko da, diru-laguntzen administrazio prozedurak sinplifikatuko dira eta bikoizketa eta zatiketa murriztuko dira. Haren helburua da atzerrian ikasteko, prestatzeko edo irakasteko aukerak sustatzea.

Erasmus+ programan hiru ekintza mota daude:

- **1. ekintza gakoa. Pertsonen mugikortasuna ikasketak direla eta.** Ikasleen eta langileen mugikortasuna ikasteko, dela Europako herrialdeen artean dela eskualdeen artean. Hemen sartzen dira hezkuntza eta prestakuntza maila guztietako ikasketak eta prestakuntza, praktikak enpresetan, irakaskuntza aldiak eta garapen profesionala, baita jarduera ez-formalak ere, hala nola, gazteendako boluntariotza.
- **2. ekintza gakoa. Berrikuntzarako eta jardunbide egokien trukerako lankidetza.** Hezkuntza erakundeen,

gazte erakundeen, enpresen, tokiko eta eskualdeko agintarien eta GKEen arteko lankidetza proiektuak hezkuntza, prestakuntza eta gazteria arloetan praktika berritzaileak garatzeko eta aplikatzeko eta enplegagarritasuna, sormena eta espiritu ekintzailea sustatzeko.

- **3. ekintza gakoa.** Estatu kideetan **politiken erreformak laguntzea** eta kide ez diren herrialdeekin lankidetzan aritzea politikak froga sinesgarriekin indartzeko eta jardunbide egokiak trukatzeko. Lankidetza horren barnean sartuko dira gardentasunerako tresnak garatzea, ikerketa transnazionalak egitea eta Bolonia eta Kopenhageko (Lanbide Heziketa) prozesuak bezalako berariazko gaiak laguntzea…

Gainera, Erasmus+ programak:

- Kredituak bermatzeko sistema bat izanen du, atzerrian egindako master ikasketak finantzatzeko eta oso kualifikazio altua eskatzen duten lanetarako beharrezko gaitasunak eskuratzeko.
- 300 "Ezagutzaren Aliantza" eta "Gaitasun Sektorialetarako Aliantza" sortuko ditu.
  Ezagutzaren Aliantzak sortuko dira goi mailako hezkuntzako erakundeen eta enpresen artean eskala handiko elkarteak ezartzeko, sormena, berrikuntza eta espiritu ekintzailea sustatzeko eta, hala, ikasteko aukera eta kualifikazio berriak eskaini ahal izateko.
  Gaitasun Sektorialetarako Aliantzak prestakuntza zentroen eta enpresen arteko elkarteak izanen dira, enplegagarritasuna sustatzeko curriculumaren berariazko garapenaren bidez, sektoreka, eta Lanbide Heziketarako berrikuntzen bidez.

Erasmus+ zifretan:

- Goi mailako 2 milioi ikaslek atzerrian ikasteko edo prestatzeko aukera izanen dute; 450.000 praktikaldi barne.
- Lanbide Heziketako 650.000 ikasle eta ikastunek atzerrian ikasteko, prestatzeko edo lan egiteko bekak jasoko dituzte.
- 800.000 maisu-maistra, irakasle, prestatzaile, hezkuntza sektoreko langile eta langile gaztek atzerrian irakasteko eta prestatzeko aukera izanen dute.
- Ikasturte oso bat beste herrialde batean ematen duten masterreko 200.000 ikaslek mailegurako bermeak izanen dituzte.
- 500.000 gazte baino gehiago gai izanen dira atzerrian boluntariotza programetan edo gazteen arteko trukeetan parte hartzeko.
- 25.000 ikaslek baino gehiagok master bateratuetarako bekak jasoko dituzte; horrek esan nahi du atzerrian gutxienez bi goi mailako irakaskuntza erakundetan ikasiko dutela.
- 125.000 erakundek, horien artean Lehen Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxeak, prestakuntza erakundeak, goi mailako eta helduen irakaskuntzako erakundeak, gazteen erakundeak eta enpresak, finantzaketa jasoko dute, esperientzien trukea eta lanaren munduarekiko loturak sustatzeko 25.000 «Elkarte estrategiko» bitarte ezartzeko.
- 3.500 hezkuntza erakundek eta enpresak laguntza izanen dute enplegagarritasuna, berrikuntza eta ekimena sustatzeko 300dik gora «Ezagutzaren Aliantza» y «Gaitasun Sektorialetarako Aliantza» sortzeko.
- Kirolaren esparruko 600 elkartek (Europako ekitaldi ez-komertzialek barne) ere finantzaketa jasoko dute.

LANBIDE HEZIKETAREN NAZIOARTEKO DIMENTSIOAREN GARRANTZIA

Carmelo Arriazu
Tuterako "ETI" IIPko
Elektronikako irakaslea

Kalitatea, Berrikuntza, Nazioartekotzea Lanbide Heziketan. Duela urte batzuetatik hona puri-purian dauden hitzak badira ere, hitz horien atzean badira gauetik goizera agertzen ez diren laneko eskakizuna, esperientzia, ezagutzak eta konpromisoa. Honek ez du esan nahi esperientziarik edo ezagutzarik gabe hastea ezinezkoa denik, hasteko ez baita inoiz berandu, baina laneko eskakizun eta konpromisoa ezinbestekoak dira erronka horiei guztiei aurre egin nahi badiegu.

Ezagutzen ditut Lanbide Heziketako zernahi ikastetxe Espainian, Europan eta Ameriketan. Ikastetxe horietako askok kalitatearen, berrikuntzaren eta nazioartekotzearen aldeko apustua egin dute eta horietako bat gurea da, oso emaitza gogobetegarriak lortu dituena. Halako kontuetan murgildurik nagoenez, hona hemen zenbait hausnarketa.

Esan dut gure ikastetxea halako arloetan murgildurik dagoela. Hori hala izanik, nazioartekotzea hiru ekintza mota hauen inguruan gertatzen da: lehenik, gure ikasleak nazioartekotzea; bigarrenik, gure irakasleak nazioartekotzea; eta hirugarrenik, berrikuntza proiektu teknologikoak eta hezkuntzakoak partekatzea.

Lehen ikuspuntutik abiaturik, gero eta mundu globalizatuago batean bizi gara eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiei esker munduko edozein tokitan birtualki "egon" gaitezke. Hori hala bada ere, beste kultura eta gizarte batean, norberaren etxetik urrun, beste jende batzuekin bizitzeko esperientziak esperientzia pertsonalak eta ezagutzei buruzkoak ematen ditu, pertsona bera eta bere curriculuma aberasten dutenak, alegia.

Garrantzitsua da pertsonen arteko harremana –ikustekoak dira Europako berrehunen bat ikasle Italiako mensa baten inguruan edo topaketa multikultural batean Florentzian (Italia)–.

Garrantzitsua da gure ikasleak pertsonalki eta teknikoki murgilduta ikustea automobil faktoria batean, Milanen (Italia), enpresa aeroespazial batean, Grenoblen (Frantzia), ziberzentro batean, Londresen (Erresuma Batua), software enpresa batean, Belfasten (Irlanda) eta abar. Ahaztu gabe, jakina, beste hizkuntza batzuk ezagutzea. Horrek guztiak es-

perientzia hauek garrantzitsu egiten ditu gure ikasleendako.

Harremanak ditugu dozenaka enpresarekin –gure ikasleak haietan egon dira edo haietan praktikak egiten ari dira Leonardo eta Erasmus programen bitartez–. Ia-ia ikasle guztiek (%98k) esperientzia errepikatuko lukete.

Emaitza hauek egonaldi hauek bultzatzera animatzen gaituzte, baina, horretaz gainera, gaur egungo egoera ekonomikoaren aurrean, uste dugu nazioartekotzea ezinbestekoa dela eta gure betebeharra dela gure ikastetxeko ikasleak harremanetan jartzea ez soilik gure inguruko enpresekin, baita nazioartekoekin ere, haien okupabilitatea handitu eta haien prestakuntza bultzatzeko.



Norabide horretan, horrenbestez, arlo honetan hartzen ditugun ekintzak urrats adierazgarriak dira, baita urrats sendoa ere prestakuntza dualari eta ikastetxearen eta enpresaren arteko loturak estutzeari buruz.

Nazioartekotzearen bigarren ekintzatik abiaturik, ikastetxeak ikasleak nazioartera mugitzearen alde egiten du eta ez hori bakarrik, baita irakasleen mugikortasunaren alde ere. Hartara, ikastetxeko irakasleek beste herrialde batzuetako ikastetxeekin irakaslan-ekintzak trukatu dituzte, hala nola, Florentziako Leonardo Da Vinci Institutukoekin edo Mauleko Institutukoekin eta beste irakasle batzuk Italia eta Frantziako enpresetan egon dira.

Berdin Florentziako Leonardo Da Vinci Institutuko ikasleek eta irakasleek ikasturtean gure ikastetxean egindako egonaldia. Tamalez, gure ikasleek ezin izan dute hara bidaiarik egin arazo ekonomikoengatik.

Irakasleen egonaldi eta truke hauek beste herrialde batzuetako hezkuntza prozesuen ikuspegi garrantzitsua ematen digute eta horri eskerrak konpara daitezke haien ekintzak, metodologia eta haien baliabideak gureekin, ikusi non egiten dugun bat, zein diren balizko hobekuntza arloak eta zein diren gure indarguneak, eta berdin beste herrialde bateko irakasleendako. Horri guztiari esker gure irakasleen irakaslana aberasten duten ikuspegia eta ezagutzak eskura izanen ditugu eta, orobat, helburu esanguratsua izanen da nazioartekotzearen eremuan lan egiten duten Lanbide Heziketako hezitzaileen eta koordinatzaileen lanbide gaitasuna garatzea.

Nazioartekotzearen hirugarren ekintzari dagokionez, ikastetxearen helburuetako bat da Europar Batasuneko beste ikastetxe eta enpresa batzuekin berrikuntza proiektuetan parte hartzea.

2010-2012 ikasturteetan, gure ikastetxea Europar Batasunak finantzatutako REWORCOM izeneko proiektu bat garatzen parte hartu du bazkide babesle moduan, Komunikazio Industrialetako, Robotikako eta Telefoniako Teknologiak web bidez urrutitik ikasteko.

Proiektu horretan parte hartu dute Turkia, Italia eta Frantziako Lanbide Heziketako ikastetxeek eta ikasmaterialak sortzen dituzten Grezia, Austria eta Suediako enpresek.

Lanik garrantzitsuenak izan dira praktikak egiteko urrutitik kontrolatutako laborategi baten garapena eta ikasmaterial berritzaileen prestaketa. Lan horiek arrakastatsuak izan dira eta EHPEA Europako Agentziak zoriondu ditu.



Gaur egun, ikastetxea bi proiektutan murgildurik dago beste lau herrialdetako ikastetxeekin batera.

Ekintza hauen emaitza laburbilduz:
Gure ikasleengan pentsatuz "beharrezkotzat jotzen dugu nazioartekotzea curriculumean txertatzea gure ikasleek liburuetan aurkituko ez dituzten kultura arteko esperientzia errealak, ez birtualak, bizi ditzaten. Era berean, garrantzitsua da ikastetxeetako zuzendaritzek eta hezkuntzako agintariek irakasleak kulturartekotasunaren garrantziaz sentsibilizatzea".

Ikasleek halaxe diote: "Esperientzia aberasgarria eta sakona da; errepikatu nahi dugu, ez soilik lanbide arloan jasotako prestakuntza teknikoagatik, baizik eta esperientzia pertsonalagatik".

Gainera, ikasleei ziurtagiri bat ematen zaie, zeinetan egiaztatzen den behar den gaikuntza jaso dutela eta lanbide horren berariazko erronkei aurre egiteko gai direla eta prestakuntza dutela.

Bestalde, irakasleen trukeari buruz, uste dugu beste herrialde bat, beste kultura bat ezagutzeko eta, funtsean, lanbide arloan beste herrialde batzuetako irakasleekin esperientzia aberasgarriak partekatzeko aukera dela. Nolanahi ere, antzeman dugu herrialde bakoitzak bere errealitate eta beharrak dituela. Hori hala bada ere, heterogeneotasun horrek oztopo ematen badu ere, konturatu gara aniztasuna positiboa dela, hau da, aukera bat dela esan dezakegu!

Berrikuntza proiektu teknologikoak eta hezkuntzakoak partekatzeari dagokionez, geure buruari eta gainerako herrialdeei frogatu diegu baditugula esperientzia, ezagutzak, konpromisoa eta exijentzia eta horrek guztiak Europako edozein herrialderen maila berean jartzen gaituela, teknologia aldetik, gizaki moduan eta kulturalki.

Bukatzeko, kultura eta herrialde desberdinetan bizi bagara ere, pozgarria eta asebetegarria da jakitea helburuak eta ilusioak partekatzen ditugula gure ikasle eta irakasleak nazioartekoak, interkulturalak eta profesionalki gaituak izan daitezen.

Consejo Escolar de Navarra
Junta Superior de Educación

Nafarroako Eskola Kontseilua
Hezkuntzako Batzorde Nagusia